

TOKIKOM

2016ko azaroa | 164. zenbakia

# aike! txorie



Fernando Pérez

## Hurbiletik aztertuz



# BEREZKO ARGIA DUEN MERKATARITZA



## 500 € NAHI?

**5 Txeke zozketatuko ditugu Derioko merkatarri elkarteko kideen saltokietan erosketak egiteagatik**



Elkartekide diren 3 saltokietan egiten dituzun 10 €tik gorako erosketengatik. Azaroaren 1etik abenduaren 27ra. Oinarriak saltokietan izango dira.

## ERAKUSLEHIO LEHIAKETA

### Begira, gozatu eta irabazi!

**Abenduaren 1etik 27ra**

*Parte-hartzailleen artean*  
**HIRU SARI (30€, 50€ eta 70€)**  
*zozketatuko dira.*

**Aukeratu zūre gogokoena, gozatu eta irabazi!**

**Zozketa abenduaren 27an egingo da, "Kultur Birikan" 20:00etan, GABONETAKO GALA HANDIAN.**

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Gaizka Uraga, langile balioaniztuna
-  **12** Gurean izan da... *Bikingoa*, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Urko Aurrekoetxea, musikaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Fernando Pérez, Zamudioko medikua
-  **22** Euskararen Nazioarteko Eguna
-  **24** Egoitz Campo, kirol ezohikoen *frikia*
-  **26** Sondika eta Zamudioko azokak
-  **28** Toti Martinez de Lezea, idazlea
-  **30** Taldeak... Kalabazan Kultur Ekimenak
-  **32** Osasuna... Influenza, urteroko epidemia
-  **34** Lezamako aurrekontu parte-hartzaileak
-  **35** Aikorrizketa... Lehen oinez, orain uhinez
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Maria Díaz, *Bikingoa*, aktorea



26 Zamudio eta Sondikako azokak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

**aikor!**  
txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarteen  
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,  
Arrekilili, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

**Erredakzio taldea:** Maite Leckerika, Eduardo Delgado, Jon Goikouria  
Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Eder Merino, Izarne Agirre, Itsasne Zubiri, Juanjo Ortiz  
Llamosas, Oihana Astobiega eta Jose Angel Mentxaka

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

2015 **Bikam**  
euskalaren  
kaltate zuntzaren

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

## Hautsak astinduz!

**I**kasturte hasierako uneak nerbioz beterikoak izaten dira bai ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere; aurten, aurrebaluaketak egitean, horrelako erantzuna eman zidan ikasle batek ikasketak zein eredutan eginak zituen galde-tu nionean: "Eskola normal batean, euskara ikasgai hutsa baino ez den eskola batean", esan zidan gaztelania perfektu batekin eta barre algarra artean. Horrela gordin-gordinik eta goizeko zortzi eta erdietan. Aho-zabalik geratu nintzen, arrotz sentiarazi ninduen nire etxean. Aurretiaz esandakoa gutxi zelakoan, jarraitu egin zuen eta, mesedez, euskarazko fitxak bere apalera bueltatzeko eta ingelesa irakasteko eskatu zidan, berak nahiago zuela baliagarria izango zaion hizkuntza ikasi. Jarraian, eta odolak irakiten zidan bitartean, bi irtenbide planteatu nizkion nire buruari, eztanda egin edo iritzi artikulu bat idatzi, eta, zorionez bigarren aukera hautatu nuen.

Nola uler daiteke bertako hizkuntza gorrotatuz atzerriko beste bat ikasteko grina izatea? Nola egin ditzake nerabe batek horrelako loturak? Argi dago herentziaz jasotako ideia dela, baina hain da gordina, hain gogorra gorrotoz bizitzea zure parte ere baden zerbaitekin. Bestalde, eta politikari kutreek kaleratutako gezurrez beteriko spotez gain, Eusko Jaurlaritzan telefonoz, sarritan, "Egun on" bati "Buenos días" batekin erantzun eta "hablemosencastellano por favor" jarraitzen dutenean ez diote mesederik egiten ez hizkuntzari, ezta beren hizkuntza izanda ere euren sentitzen ez duten horiei ere. Hemen irakasle bezala aritzeko derrigorrean eskatzen dute atzerriko hizkuntza bat menperatzea; bitartean, hainbat erakunde publikotan elebakartasuna justifikatzen da. Horrelako dikotomiekin zaila da askoren pentsaera aldatzea, baina horretan dihardugu...

Zorionez beste aldean, ezagutu ditut Dakarren jaiotako euskaldunak, Indian



**EDER MERINO**  
(Irakaslea)

euskara maitatzen ikasi dutenak, Marokon euskara ikasi nahi dutenak, Extremaduratik eta Kataluniatik bidalitako hizkuntzarekiko maitasun mezuak eta horrelako beste hamaikatzko adibide... Baliteke gordintasunek gogor kolpatzea eta, askok hizkuntza kateatu, gutxietsi eta zokoratu nahi izatea, baina egunero gabiltza lanean demostratzeko euskaraz kalitatezko hezkuntza eskaini ahal dela, fisika kuantikoko doktoretza eskuratu, bidaiatu edo txortan gozo baino gozoago egin.

**O**raindik ere Altsasun Guardia Zibil eta herritar batzuen arteko goizaldeko liskarrari etekinik atera nahi dionik bada. Gau hartan gertatutakoaz bertan zeuden herritarrei galdetu ordez bazterrak nahastu dituzte, interes politiko eta mediatikoen mesedeetan. Horren ikusgai izan zen Iruñako antzerki-manifestazioa: Espainiaren maitasuna goraiatzeko bildutakoak, Guardia Zibilaren presentzia itogarrian eroso daudenak, Asironi dimisioa eskatuz, euskararen kontrako lelorik entzun ez arren, seguru baten batek gustora nahastuko lituzkela... eta kaka-nahaste hortan nire buruan etengabeko oihartzuna utzi zuen galdera: non daude feministak? Horixe galdetzen zuten manifestariak... Orduan gertakaria galderarekin lotu nahaian hasi

## Feministak non dauden?



**IZARNE AGIRRE**  
(Irakaslea)

\*gazteak atxilotu dituzte terrorismo delituengatik, ika-garria eta beldurgarria. Muntai poliziala muturreraino eramana. Elkartasun osoa haiei eta Altsasu herriari.

naiz, feminismoa zer den oraindik batzuek ez dutela ulertu, edo borroka hura genero indarkeriarekin lotu nahi duten... Zorionez, Euskal Herriko feministak mediatikoki kaka artean eta arinkeriak baino pauso sendoa-goetan dabilta. Feministak non dauden? Gizarte eredu ez patriarkala, ez kapitalista, ez militarizatu baten alde lanean. Emakumeen kontrako erasoak salatzen, beste eredu sozialago batzuk aldarrikatzen, erakundeetan izandako lorpenak ospatzen, munduko emakumeenganako elkartasuna erakusten... Euskal Herriko feministak Altsasun daude, milaka herritarrekin batera, indar polizialei bakean uzteko eskatzen\*.

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburubata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
**94 4520419**

**ama**  
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
**94 655 93 69**

**Alaia**  
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak

Talleri, 5  
48170 Zamudio  
**94 685 06 81**



## 9,5 milioi euro, Txorierriko 3. lineako zortzi geltokietan

Euskotren Trenbide Sareak (ETS) 9,5 milioi euro inbertituko ditu Etxebarriko San Martinetik Lezamara joango den 3. lineako zortzi geltokietan. 2017ko martxoan inaurgutuko den lineako Txorierriko hainbat geltokik eraberritze lan gogorak izango dituzte, ETSko iturrien arabera. Lanak honako hauek izango dira: nasak tren berrien altueretara moldatzea eta bidaiari-lekuak zein markesinak trenbide sarearen irudi berrira eraberritzea.

Derioko geltokiak inbertsio handiena izango du, lau milioi eurokoa. Berez, geltokia goitik behera eraberritu beharko da atari berriaren sorrerarekin eta lur-azpiko pasabide berriarekin, besteak beste. Elotxelerrikoa ere goitik behera eraberrituko da: nasa luzetuko da, ranparen malda gutxiagotzeko,

mugikortasun mugatuko pertsonentzat. Txartel makinak kristalez estaliko dira eta geltokiko sarrera bat kenduko da, erabiltzaile kopurua hobeto kontrolatzeko.

Larrondoko geltokiko lanak amaitzear daude eta azken hiru hilabeteetako eraberritze-lanetan 400.000 euro gastatu dira: mugikortasun mugatua duten pertsonentzako sarreraren lanak, nasek eta geltokiko altzarien zein iluminazioaren eraberritzea... Lezamako geltokiaren kasuan ere, Larrondon bezalako inbertsioa izan da, eta geltokiko eraberritze-lanetan hitzarmena egin du ETSk Lezamako Udalarekin: Udala goiko pisuko lanez arduratuko da, eta ETS behekoek. Sondikaren kasuan nasak handituko dira eta bi markesinak eraberrituko dira.

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Finalaurrekoa, Larrabetzun

Azaroaren 19an Markina-Xemeinen eta hilaren 27an Basauriko Artunduaga kiroldegian egingo diren bertso-saioen ostean, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa presatu du (#btt16) abenduaren 3an, 17:30etan, Larrabetzuko frontoian. Bertan izango dira Ander Elortegi Garatea, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia, Julen Erezuma Arzanegi, Mikel Goirierna Larrazabal eta Miren Amuriza Berrizbeitia bertsolariak. Gainera, Etxahun Lekue Etxebarria larrabetzuarra ere izango dugu han. Maite Berriozabal Berrizbeitia gai-jartzailetzat arituko da. Sarrerak bertsozale.eus webgunean eskuratu ahal izango dira, bai egunean bertan, bai txarteldegian. Finaleko sarrerak bertan izango dira ere.

### Informazio gehiago:

[bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa](http://bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa)



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**GAMINIZ**  
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025  
email: [gaminiz@gaminiz.com](mailto:gaminiz@gaminiz.com)

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

[www.gaminiz.com](http://www.gaminiz.com)

**Carrefour**  
express

**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatuan  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**ERREKA** **ONDO**  
JATETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 28 29



## Zamudioko IV. rallya, prest

Azaroaren 25 eta 26an Zamudio Racing elkarteak laugarren aldiz egingo dute Zamudioko Rallya. Motor elkarteak 50-60 pilotuen etorrera estimatu dute. "Zaila da gure herrira hurbilduko diren pilotu guztien adina eta jatorria zehaztea, denetarik dago eta", aipatu du Arkaitz Hormaetxek, antolatzaileetako batek. Hala ere, harrera ona espero dute antolakuntzakoek. Rally osoa Txorieriko inguruetan egingo da eta lau zatik osatuko dute ibilbidea: lehenegoa, Meakaurreko 8,40 km-an; bigarrena, Fikako 5,30 km-an; hirugarrena, Viveroko 9,80 km-an; eta laugarrena, Zaratomoko 5,70 km-an. Guztira, ibilbideak 58,80 km izango ditu. Zati bakoitza bi alditan egingo dute pilotuek. Zamudioko Rally elkarteaz gain, Real Peña Motorista Vizcayakoak izan dira antolaketa-lanetan.

**Informazio gehiago:**  
[www.eaf-fva.net](http://www.eaf-fva.net)

## Eusko Jaurlaritzak Sondikako 101 BOE konponduko ditu

Txorisoloko 1 eta 7 bitarteko 101 etxebizitzan auzotarrek udako beroaren eta neguko hotzaren astinduak eta fatxada plaken jausierak jasan dituzte euren Babes Ofizialeko Etxeak jaso zituztenetik, duela lau urte. Paula Rodríguez etxebizitza horietako batean bizi da. "Uda heltzean gortinak ixten ez baditugu beroak itozten gaitu", aldarrikatu du. "Obra aurrekoetan zin egin zigutena eta egindakoaren artean alde handia dago. Txorisolon egin dutena lardaskeria hutsa izan da".

Problemak agertu eta lau urtera, Eusko Jaurlaritzak Visesa organismo publikoaren bidez eraiki zituen etxebizitza hauek eta obrak lehiaketara iragarri ditu. "Le-

henik eta behin arazoaren kausak aztertu genituen, irtenbideak lortzeko. Auzotarrekin harremanetan jarri gara, eta honetan denbora eman dugu, tekniko propioaren eta auzotarren komunitatearen oniritzia behar izan baitugu. Momentu honetan auzokideen komunitatearen argi berdearen zain gaude, lanak martxan jartzeko", argitu du Cristina Alonsok, Visesatik. Egingo diren aldaketen artean, hezetasuna ekingo dituen filtrazio-lanak izango dira. Horretarako, fatxada berri bat egingo da, etxebizitzak kanpoaldetik aislatzeko. Guztira 1.149.000 euro inbertituko dira erreformatan eta lanek 15 hilabete iraungo dute, Visesaren esanetan.



**BIZKARGI**  
TABERNA ETA JANARIA  
Urkiola, 6 DERIO 944541655

**aldekone**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87  
Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa  
-Especialitate guztiak zentro bakar batean  
-Aurkorkutza doan  
-Especialitatea: umeak  
Urtebe 7, behean  
48160 DERIO (Bizkaia)

**Abelino Arraindegia**  
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**HORTZ - KLINIKA**  
Jasone Azurmendi Garai  
Pakearen Plaza, 1 - 1º A  
DERIO Telefonoa: 944 543 705

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781

**ADARVE KAFETEGIA**  
Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA  
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

2012ko azaroan entregatu bezain pronto, auzotarrek problemak izan zituzten euren etxebizitza berriekin. Lehenengo hilabeteetan kanpoaldeko plakak jausten hasi ziren eta 1 eta 7 bitarteko etxebizitzaren inguruan hesiak jarri behar izan zituzten, istripu posibleak ekiditeko. "Teilatuko eguzki-plakak ez zeuden behar bezala lotuta, eta lehenengo hilabeteetan haizeak eramaten zituen" adierazi du Paulak harrিতuta. Auzotar batzuren esanetan, euria etxe barruan sartu zaie behin baino gehiagotan. "Arazo larria da: etxebizitzak konpontzen ez badira ezin izango ditugu saldu, kasurik txarreanean", azaldu du Rodríguezek.

#### Errudunaren erantzukizuna

Eusko Jaurlearitzako organismoaren esanetan, "proiektuaren atzerapena enpresa-erakitzaile ohiarengatik izan da" adierazi dute. "Hasieratik ez zuten etxebizitzak konpondu nahi izan eta ez dituzte euren betebeharrak behar bezala egin" adierazi dute Visesakoek. "Hainbat bilera izan genituen enpresa-erakitzailearekin, arkitektoekin eta aparejadoreekin. Zenbait arrazoiengatik ez dute konponketa lanetan partehartzetik nahi izan", adierazi du Cristina Alonsok. Visesaren esanetan, bide judizialek erantzukizun zibila eta konponketen gastuak eskatuko die arduradunei, obrak bukatu bezain laster.

## Termitek triskantza egin dute Larrabetzun



Larrabetzuko alde zaharra termitez beteta dago. Iñigo Gaztelu alkateak adierazi duenez, "guztira bost kolonia identifikatu dira momentura arte, eta euren aurkako tratamendua martxan jarri zen apirilean". Plaga hauek 57 etxebizitza eraso eta 120 familia inguru kaltetu dituzte, Udalaren esanetan. "Horibai gaztetxearen aurreko etxebizitza bat goitik behera eraberritu behar izan da", adierazi du Gazteluk.

Arazoa 2013an hasi zen. Alde zaharreko hainbat auzokidek alde zaharreko hiru-lau etxe termiten erasoak jasaten ari

zirela adierazi zuten eta, hori dela eta, Termiten Kaltetuen elkarteak sortu zuen Alberto Albaizarrek, 2014an. 2015ean, enpresa bat kontratatu zen lau hilabeteko ikerketa egiteko. "Emaizta modura, bost urteko tratamenduari hasiera eman genion apirila eta maiatza bitartean" azaldu du Iñigok. "Lehenengo bi urteetan termitek hila egiten dira eta hurrengo hiru urteetan jarraipena egiten da, plaga deuseztatzen dela ziurtatzeko". Maiatza aldera, Udalak 200 jakez zuzen janari pozoi-tuarekin. Pozoiak ez dauka berehalako efekturik, baina termita langileek sustantzia toxikoa habian zehar hedatzen dute, ohatze osoa desagertarazi arte.

Tratamenduaren kostua 55.000 euro ingurukoa da: % 40a Udalaren diru-laguntza bitartez egingo da eta % 60a, auzokideen artean ordaindu beharrekoa. Etxebizitza kaltetu bakoitzak 150 euro inguru ordaindu beharko ditu urtero, bost urteetan zehar. Termita plagak ez dira ezohikoak herri hezeetan, eta arretarik eskaini ezean, bertako etxeekin bukatzea denbora kontua baino ez da. Antzeko kasuak izan dira Getxoko Portu Zaharreko 65 etxebizitzetan, Amorebieta-Etxanoko 11 etxebizitzetan (600.000 euroko kostuarekin) eta Izurtzako udaletxean, Abaroako jauregian eta Gordexolako kultur etxean, besteak beste.



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basernko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
819 78 58 84



**Peluquería  
y Estética**

94 455 81 44

Anguleri 2, behea Larrabetzu-Bizkaia



**FRUTAK  
BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak  
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19



**LARRABETZU  
LOROÑO BEHEKOA  
(BIZKAIA)**

94 455 81 97

**AKERBELTZ, HALLOWEENKO KALABAZEN ORDEZ.**– Joan den urteko lehen edizioaren arrakasta ikusi ostean, Akerbeltz Gaua bigarren aldiz egin zen Larrabetzun, urriaren 31n. Helburu nagusia Halloweeneko egunari buelta bat ematea eta ospakizunaren herri kutxua aldarrikatzea izan zen. Urriko azken eguna baino aste bi lehenago, herriko umeek danborrak, karrakak eta kartulinazko Akerbeltzen txanoak prestatu zituzten Hori bai gaztetxean. Hilaren 31n, 17:30ean irteera egin zen Larrabetzuko basora, Akerbeltzen bila. “Giro izan zen Larrabetzun, 150-200 lagun inguru batu zirelako basora egindako ibilaldian, ume eta gurasoen artean” azaldu dute antolatzaileek. Herrira bueltan, 19:30ean kalejira egin zen, dantza eta petarden artean eta 20:30ean erromeria egin zen herriko gaztetxean. Arrekikili, Garmitxa, Izar Argia, Kukubel, Gurpide, Txinpasmendi, Gaztelumendi, Horibai, Intxurreta, Gure Etxea, Itallen eta Bizkargi taldeak zein Udala egon ziren antolaketa lanetan.



a: Idoia Andres



**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86

**639 57 98 48 – 639 58 25 47**

**ZURREGOTTI**  
**JATETXEA**

Lauraola etorbidea, 27  
48160 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteauregotti.com

**Izpilen**

PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

**MARMOLGINTZA**  
**GOYO**

SURALDE-GAINEKOAK OIBAR HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 18-B nabea  
48160 Derio, Bizkaia  
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**Altzari**  
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate  
946 740 141  
663 209 209

www.altzari.com  
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

**elekma**

LARRAZIEN BAIT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TROKAK

Lehenengo marikak • Preziorri onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txerri etorbidea, 25-374 • 48180 Iruia  
T: 944 539 232  
www.elekma.es





## Lezama VI. truke azoka egingo du

Azaroaren 27an, Lezamako Udalak eta Lezama saretzen merkatarien elkarteak truke azoka egingo dute seigarren aldiz, pilotalekuan, 11:30etik 14:00ak arte. Azokan tresnak zein zerbitzuak elkartrukatu zein oparitu egingo dira. Aurreko edizioetan liburuak, arropak, etxeko tresnak, altzariak... ikusi ziren. Trukeak helburu hirukoitza dauka: kontsumoa gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Jarduera honek garapen jasangarria bultzatzen du. Azoka amaitzean, EMAUS taldea pasatuko da azokan elkartrukatu edo oparitu ez diren tresnak batu eta bestelako pertsonak aprobetxatu ditzaten.

## Lezama zabaltzen: Udala inoiz baino gertuago

Lezamako Udalak bat egin du kale-zaindu tresna berritzailearekin. Horrela, lezamarrek modu azkar eta eraginkor batean, kalean antzematen duten edozein kalte edo gabeziaren berri eman ahal izango diote Udalari, horrek arazoa ahalik eta lasterren konpon dezan. Gertaerak era bitan jakinarazi ahal izango dira: batetik, ordenagailuaren bidez, Udaleko edo Lezama zabaltzen izeneko web-guneen bidez; bestetik, sakeleko telefonoz, Lezama zabaltzen doako aplikazioa deskargatu eta gero. Tresna berritzaile hori aurkezteko, Jon Ander Aurrekoetxea

Lezamako alkateak eta Alaitz Etxeandia Lezamako alkate ohiak eta Bizcaytik fundazioaren zuzendari orokorrak eman zuten prentsurrekoa.

Era batean edo bestean, erabiltzaileak Lezamako mapa ikusiko du eta bertan, era anonimo eta intuitibo batean, kokatu ahal izango du edozein gertaera: matxura, kalte, haustura... Argazkia ere atxikitzeko aukera egongo da. Aplikazioak intzidentziak zehaztuko ditu, baita zein egoeratan dauden -zabalik, prozesuan edo konponduta- ere. Erabiltzaileak izena eman ahal izango du alerta zerbi-

tzu batean, bere telefonoan oharren egoeraren berri izateko.

Kale-zaindu tresna 2014an jarri zen martxan, Bizkaiko Foru Aldundiaren BizcayTIK fundazioaren eskutik, eta Derio izan zen hori erabiltzen hasi zen lehengo Udala. Bizkaiko beste udalerrri askotan ere erabiltzen da: Sestao, Arrigorriaga, Balmaseda, Plentzia... Momentuz, aplikazioak gertaerak jakinarazteko baino ez du balio, baina laster beste zerbitzu batzuk ere eskainiko die lezamarrei: agenda kulturala, oharra, iradokizunen postontzia...

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1  
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**auzoKide**  
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**GALAISIA** Etengabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

**Ford Goiri'78 s.l.** Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

**IRATXO** gazotegia

larta pertsonalizatuak  
trufak  
bolak  
pastelak  
pastak

Mikel Zurro, 2 - 3. lanta • Sondika, 48150 • 94 453 89 19

a: Idoia Andrés

Euripean baina ehunka larrabetzuarren babes, sustengu eta berotasunarekin aurkeztu zuten azaroaren 4an, Larrabetzuko plazan, Ebatzi elkarteak, 2017ko udaberrian erabakitzeko eskubidearen aldeko galdeketa antolatu eta bideratuko duen taldea.

Azaldu zutenez, Gure Esku Dago egitasmoaren gerizan herri bakoitzak osatzen du bere plataforma; hori dela eta sortu zen Ebatzi taldea. Taldeak jada izaera juridikoa dauka, eta aurkezpen-ekitaldia baliatu zuten Larrabetzuko Gure Esku Dago egitasmoaren lan-taldea osatzen duten ia hogeiki kideak aurkezteko. Modu horretan hasiera eman zaio erabakitzeko

*Udaberrian egingo den galdera erabakitzeko prozesu ireki bat jarriko dute abian*

eskubidearen galdeketa-rekin amaituko den prozesuari, eta galdeketa hartzeko falta diren ekintza-sortari.

Hasteko eta behin, ekitaldian aurreratu zutenez, behin elkarteak legeztatuta, sinadura bilketari ekingo zaio galdeketa behin betiko eta modu ofizialean deituko. Horrez gain, 10 euroko laguntza-bonuak jarriko dituzte salgai aurki galdeketa-kostuei aurre egiteko. Bonu horiek salgai egongo dira, besteak beste, auzotar baten lagapenari esker Ebatzi zabaldu duen lokalean (BBKren lehengo bulegoa). Hain zuzen ere, Ebatziaren nahia da prozesua guztiz gardena izatea. Hori dela eta, antolatuko diren ekintza guztiak, erabiliko den aurrekontua eta lortzen diren diru-sarrerak ikusgai egongo dira lokalean bertan.

## Larrabetzun hasi da galdeketa bidea



Beste alde batetik, iragarri zuten udaberrian egingo den galdera zein izango den erabakitzeko prozesu parte-hartzaile eta ireki bat jarriko dutela abian, ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten.

Ekitaldian, Alex Zenarruzabeitia Gure Esku Dago egitasmoaren Bizkaiko koordinatzaileak ere hartu zuen berba, Euskal Herriko beste herri batzuetan epe laburertan aurreikusten diren dinamiken berri emateko eta jada egin den herrietan ekimena nola gauzatu den azaltzeko. Horren haritik, aurkezpenaren momenturik hunkigarriena Ispasterreko ordezkarien eskutik etorri zen, emozioz beteriko mintzaldian ekainean burutu zuten galdeketa-aren esperientzia esplikatu zutenean.

Egin beharreko urratsak aurreratzeaz gain, zera azpimarratu zuten Larrabetzu-

ko Gure Esku Dago egitasmoa kideek, guztiz dinamika herritarra dela, ez dela alderdi politikoei antolatu duten ezer. Horregatik, talde eragilearen helburua herritar guztien parte-hartzea sustatzea dela. Izan ere, adierazi zutenez, "zenbat eta atxikimendu gehiago izan, orduan eta indar gehiago edukiko du herriaren hitzak", eta, beraz, "azken txanpari hasiera eman zaion honetan Larrabetzuko azken olatu honen partaide" izatera gonbidatu zituzten Larrabetzuko auzotar guztiak.

Ispasterreko ordezkariak eman zioten amaiera ekitaldiari. Ostera ere igo ziren oholtzara, eta beraiek erabilitako hautetsontzia Larrabetzuko Ebatzi ordezkariak pasa zieten, "olatu hau adierazten duen erreleboa" irudikatze aldera.

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeletako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoini ind., 7 B.P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**PATXI**  
KOOP

FEDERAZIO KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nabarro 10. 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 94 608 01 41 | www.patxi.com

**KIMA**  
Landarak  
LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)



## Gaizka Uraga Bilbao | langile balioaniztuna

Nekazarien familiakoa, zamudioztarrak bost urte daramatza Zamudioko Nekazaritza Kooperatiban lanean, eta Txorierriko nekazari gehienek ondo baino hobeto ezagutzen dute 30 urteko gaztea. Bertara iritsi baino lehen hamaika tokitan izan da ikasten eta beharrean, zein baino zein ezberdinagoak: institutuko ikasketak amaitu bezain laster, mekanika ikasketak egin zituen eta gutxira peoi moduan lan egiten hasi zen obra batean. Bertatik, hargintza lanetara igaro zen eta kontratua amaitu zuenean obretako erreminta pisutsuak erabiltzeko ikastaroa egin zuen. Amaitzean, obrara itzuli zen, baina oraingo honetan Larrabetzura, bertako aitite batzuekin baserriak eraberritzea. Gaur egun bere saltsan dabil, etxean ikusi eta ikasitakoa bere ofizio bihurtuz.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti  
[www.jongoikouria.com](http://www.jongoikouria.com)  
[instagram.com/jongoikoh](https://www.instagram.com/jongoikoh)

**lezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritza klinika  
[www.consultorioveterinariolezama.com](http://www.consultorioveterinariolezama.com)  
J.R. Galdona Madariaga  
BI-515  
servicio de urgencias  
24h  
94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

Medikuntza orokorra  
Txertaketak  
Parasitoak hil  
Mikrotxipa  
Kirurgia  
EKG  
Analiak  
Ospitalizazioa  
Ekografiak

**bai euskarari**  
Bai Euskarari Zurlagiria,  
eta zurlagiriaren bidez:  
ikasketak eta lanak

Zurlagiriaren ikaslea  
bai  
Urrats Biziak

[www.facebook.com/zurlagiriarenikaslea](https://www.facebook.com/zurlagiriarenikaslea)  
[www.instagram.com/zurlagiriarenikaslea](https://www.instagram.com/zurlagiriarenikaslea)  
[www.tiktok.com/@zurlagiriarenikaslea](https://www.tiktok.com/@zurlagiriarenikaslea)



t: Gaizka Eguzkitza

### Zelan Derion?

Ondo. Betiko moduan, horrelako saioetan oinarritzko gidoia prestatzen dut, baina inprobisatzeko aukera ere izaten dut. Inprobisatzea behar-beharrezkotzat jotzen dut; bestela, aspertu egiten naiz. Ezin dut gauza bera kontatu era berean eta leku guztietan.

### Nor da Bikingoa?

Ni neu! (kar, kar). Bikingoa nire izaeraren zati bat da, zati ganberroa, lotsabakoa. Bikingoa da politikoki zuzenak ez diren gauzak esatera ausartzen dena. Guztiok dugu bikingo bat geure barruan, eta batzuek umea izateari utzitakoan galitzen dute bikingoa. Batzuetan, askatzen dugunean, benetan pentsatzen duguna adierazten dugu, itxurakeriarik gabe. Bikingoa pertsonaia baino gehiago, guzion alderdi bat da.

### Zertan oinarritzen zara umorea egiteko orduan?

Ez naiz umore bila ibiltzen. Neure bizitza arruntean gertatzen zaizkidan kontuak jorrotzen ditut nire bakarrizketetan. Beste umorista batzuk esertzen dira eta hausnarketak egiten dituzte; nik ez, neuri gertatzen zaizkidan gauzak bitxiak dira eta haiek hartzen ditut oinarritzat.

### Askotan zeure buruari, batez ere zeure itxurari, barre egiten diozu, ezta? Zergatik?

Bai, betidanik egin dut. Ikusten duzun lehenengo gauza zure burua da eta ezin

## “Guztiok dugu bikingo bat geure barruan”

MARÍA DÍAZ, BIKINGOA | aktorea

Azken bolada honetan *Encomediados* zirkuituari esker, umorezko bakarrizketak zuzenean ikusteko aukera dugu Derion. Azaroaren 11n, Raul Fervek eta María Díazek barre-algarak sorrarazi zituzten Gurea Aretora joan zirenen artean. Ekitaldiaren ostean, María harrapatu genuen eta bere hitzak jaso genituen. Asturiarra berritsua eta zintzoa da.

diot errealitateari bizkarra eman. Beste neska batzuk politikak dira eta modeloak dira. Ni, aldiz, ez naiz Cibeles Pasarelan inoiz ibiliko (kar, kar). Era berean, nire buruari barre egitea defentsa-mekanismo bat da. Itsusia izateaz gain, erretxin agertzen banaiz, jai daukat (kar, kar).

### Normalean aretoz areto ibiltzen zara bakarrizketak aurkezten, baina telebistan ere egin duzu lan, ezta?

Bai, telebistan lagun baten bidez hasi nintzen. Ignatius umoristak izena eman zidan *El rey de la comedia* saioan. Lehaketa bat zen eta hasieran oso pozik ibili nintzen, baina gero ez, ez didatelako nik nahi nuena esaten uzten. Saioa utzi nuen,

Paramount Comedy katean hasi nintzen bakarrizketak grabatzen.

### Eta gero Aida saioa etorri zen...

Bai, produktoreek deitu zidatenean ezin nuen sinetsi. Casting itxi bat egin nuen eta nor eta ni aukeratu ninduten, La Juncaren pertsonaia egiteko! Hasiera batean, atal batzuetan parte hartzeko kontratatu ninduten, baina antza denez, gustatu egin zitzairen eta azkenean, hiru denboralditan ibili nintzen *Aida* teleaioan lanean. Aldaketa itzela izan zen nire bizitzan, beste bat. Lan egiteko beste era bat, erabat ezberdina. Nik dena galdetzen nuen, ezer ez nekielako (kar, kar). Ikaragarritzko esperientzia izan zen eta primeran pasatu nuen



*"Itsusia izateaz gain, erretxin agertzen banaiz, jai daukat"*

*"Inor ezin da beti zoriontsua izan. Ni egunero ibiltzen naiz zoriontasun bila"*

lan-talde guztiarekin: aktoreekin, noski, baina baita makillaje, attrezzo edo sukaldaritzatzaletako lagunekin ere.

#### Zer ekarri dizu telebistak?

Itzelezko ospea ekarri dit. Orain guztiek ezagutzen naute, baita Guardia Zibilak ere (kar, kar). Batzuetan ez duzu inorekin egon nahi, eta gogorra da jendea kaletik zuregana hurbiltzea, baina oro har ondo daramat ospea. Semeari ez zaio gustatzen, baina senarrak normaltasunez hartzen du. Normalean jendea oso jatorra da, ze ondo egiten duzun esatera hurbiltzen delako.

#### Zer antzeztu nahiago duzu: zuk idatzitako testuak ala beste batzuek idatzitakoak?

Zalantzarik gabe, neureak nahiago ditut, hobeto ulertzen ditudalako. Bakarriketa barne-barnekoa da, nahiz eta zuri buruz ez hitz egin.

#### Irakurri dudanaren arabera, zoriontsua izatea izan da txikitatik zure ametsa. Lortu duzu?

Horretan nabil (kar, kar). Zoriontsua izatea txorakeria da, utopia. Inor ezin da beti zoriontsua izan. Zoriontsua izateari uzten diozunean konturatzen zara zoriontsua izan zarela, baina ez lehenago. Hau txakurkeria! Ni egunero ibiltzen naiz zoriontasun bila.



## Bikingoaren jaiotza

María del Carmen Díazek (Avilés, 1969) erizaintza ikasi zuen gaztetan. "Denbora luzeagoa eman nuen erizaintza izateko ikasten erizain lanetan baino. Enpatia handiegia nien gaxoei, eta oso txarto pasatzen nuen. Eta uztea erabaki nuen. Handik aurrera, ostalari-tzan egin nuen lan: kafetegi batean, after hour diskoteka baten arduraduna..."

Eta bat-batean, kasualitatez, umorista egin zen duela 12 urte. "Egun batean, aspaldian erabiltzen zen Messenger programa horren bidez, mutil batekin hasi nintzen hitz egiten. Bera

Toni Moog umorista zen eta bakarrikzketak egitera animatu ninduen. Geroago, Toni zuzenean ezagutu nuen, eta haren bitartez, baita beste umorista batzuk ere: Ignatius, Dani Mateo... Eta haiekin batera hasi nintzen bakarrikzketak egiten".

María nahiko berandu sartu zen umorean, baina, egia esateko, beti izan du barruan, familiarengandik datorkiolako. "Gurasoak ere beti izan dira oso umoretsuak, bakoitza bere estiloan: aitak txantxak eta txisteak egiten zituen edozein momentutan; ama, aldiz, flematikoagoa, ironikoagoa da".

LEIRE BEGOÑA  
ULE-APAINDEGIA  
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32  
Jarrai izagun Facebooken

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK  
Garbi-ikusiak, orokorrean  
Auzoko komunikatzaileak  
Mantentze garbi-ikusiak  
Bulegok eta lokalak  
Olinpi amarrak garbikerak  
Isasotzak  
Zabor bilera  
Besaide Plaza, 1 - B\* Aldekoa  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net  
Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion NA  
INPORTAZIOA ETA SALMENTA  
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefona-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

# “Nire buruarentzat jotzen dut”

URKO AURREKOETXEA | musikaria eta irakaslea

Musika proiektu potentea kaleratzeko norbera pozik egon behar da sortu duen lan horrekin. Horrela neurtzen du Urko Aurrekoetxeak bere lanen bideragarritasun maila. Gazte sondikarra Stratocaster zuriarekin batera esperientzia ugari bizi izan ditu musikaren esparruan, baina honekin bizitzea zaila ikusten du. Horregatik, musika eta hezkuntza ikasketak bateratzeaz bizi da gitarra-jotzailea.

*t/a: Gaizka Eguzkitza*

Sei urte besterik ez zituela akordeoia jotzen hasi zen eta musikaren atea pare pare ireki zitzaizkion. Berez, musikariaren familiakoa da Urko: ama musika klaseak ematen zituen eta izekoak gaur egun txistu eta solfeo klaseak ematen ditu Sondikako Pentagrama eskolan. Musikatik ihes egitea ezinezkoa izan da betidanik. Azken batean, musika etxean betidanik eduki du eta horretaz gozatzen hazi da. “Ez dut bizitza musikarik gabe imaginatzen: etxean ez denean, korrika egitera edo gimnasia eramatzen dut nirekin”, aitortu du Urkok.

Txorierriko institutuan batxilergoa egin ostean, irakasle-ikasketak egin zituen Deustun, haur hezkuntzan espezializatuz. Garai hartan, lehen baxua erosi zuen, 18 urterekin. Erosi eta bi astera, Malos Ratos taldea osatu zuen bi lagunekin. Urte batzuk geroago, gitarra ezagutu eta momentura arte bere kabuz ikasitakoa

finkatzea erabaki zuen, Bilboko Mr. Jam eskolara joz. “Bertan musika modernoa irakatsi zidaten: rock & roll-a, blues-a...”. Urkok ez dauka inolako problemarik beselako estiloetara moldatzeko eta instrumentu bat joz etengabe ikasteko: “Jakintzak ez dauka mugarik. Ikastea etenik gabeko prozesua da, eta nire kasuan, ezin naiz bizi musika egin gabe” adierazi du.

Musika ez dago bere momenturik onenean: “Desprestigiatuta dago eta honetaz bizitzea zaila da, bestelako ikasketekin konbinatzen ez bada”, azaldu du. Haur hezkuntza ikasketak amaitu bezain

laster, gazteak musika-magisteritzako ikasketak egiten ari da, bere pasioa alde batera utzi gabe. Urte hauetan guztietan bizi izandako esperientziak ikusita, musikaren egoeraz jabetu da. “Nazioartean, egun batez ahotsa izan dezakezu, baina kalitatezko produkturik eta zorte apur bat ez izatekotan, hurrengo egunean inork ez zaitu gogoratuko. Horrelakoxea da musikaren merkatua”, azaldu du sondikarrik. “Material izugarria daukaten taldeak daude, baina gaur egun oso zaila da agente batek zure aldeko apostua egitea. Irratian ez bazaude ez duzu publikorik izango. Horrek ez du esan nahi irratan abesti onak entzuten ez direnik; irratan betiko abesti arrakastatsuek entzuten dira egunero, behin eta berriro. Ez da inolako berrikuntzaren aldeko apusturik egiten”, jarraitu du.

Txorierriko egoerari dagokionez, Urko baikor agertzen da. “Larrabari baserriko entsaio gela sekulakoa da, eta bertatik musika talde asko igaro gara.” Hala ere,

*“Jakintzak ez dauka mugarik. Ikastea etengabeko prozesua da”*





*“Arrakasta izatea kalitatezko produktuak izatea eta zorte kontua da”*

konposatu ditut dagoeneko, baina musikariak ditut faltan”. Estiloa nahiko definitua dauka, rock modernoa: Extremoduro, Platero y Tú... Nazioarteko taldeez galdeztean Eric Clapton, Dire Straits eta Gallagher izenak bota ditu, bata bestearen atzean. Musikariaren ustetan, taldeen lehen erronka disko potentea kaleratzea izan beharko litzateke. Momentura arte konposaturiko abestiak gaztelania hutsean egon arren, Aurrekoetxearen nahia euskeraz ere konposatzea da. “Garrantzitsuena disko ona grabatu eta mugitzea da. Nik nire buruarentzat jotzen dut, eta nire lan propioa gustatzen ez bazait ez naiz pozik egongo, AC/DCren gonbidatua izan arren.”

bailaran kontzertuak emateko kafe teatroko baimena duten areto gutxi daude, eta ezin da “zarata” askorik egin. “Txorierrin faltan botatzen dira kontzertuak egiten dituzten tabernak edo aretoak. Espero dugu inauguratu berri den Baserri Antzokiak atek irekitzea bertako musika taldeei.”

Sondikarraren ustetan, musikari batek arrakasta izateko material ona izan behar du lehenengo eta behin; hau da, kalitate altuko musika produkzioa. Eta ez

hori bakarrik, “norberaren lana mugitzea jakin behar da, bai kontzertuen bitartez eta baita diskoak hedabideetatik eta sare sozialetatik mugituz”. Gainera, musika taldeak ezaugarri bi izan behar ditu: gogotsua eta egonkorra izan behar du. “Taldekide bakoitzak bestelako ardurak izatea normala da, baina taldeak dedikazioa behar du eta hori denbora kontua da”.

Momentu honetan, Urko bere banda propioa sortzen ari da. “Hainbat abesti

Agian, musikaren gaur egungo egoeraren erruduna hezkuntza sistema izan daiteke. “Hezkuntza sisteman irakasle bezala hastea oso zaila da. Gainera, musika hezkuntzako ereduak joan den mendeko beharrezanetakoa diseinatuta daudela ematen du: musika klaseak jostaldiak dirudite, txirula nahi ta nahiez inposatzen zaie umeei... Gauzak aldatu behar dira”. Argi dauka aurrera egin nahi badu, etengabe hezi behar dela, eguneratua biziz.





**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lanbide Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Uztzagale Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net  
48100 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK**

**FABRIKAZIO MEKANIKOKA**

- Mekanizazioko teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKAKA**

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**SEGURTASUNA ETA INGURUMENA**

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)





# Abenduak 1. Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Urtero bezala, Hiesaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna dela eta, Txorierri mailan, hainbat ekintza eraman-go ditugu aurrera.

## Diptikoak

Alde batetik, Hiesaren inguruan informazioa baliagarria eskaintzen duten diptikoak eskuragarri izango dira herrietako hainbat lekutan; hala nola, osasun zentrokak, ikastetxeak, liburutegiak eta gaztegunak. Diptiko horiek informazio erabilgarria jasoko dute Giza Immunoeskasiaren Birusari (GIB) buruzko mitoak eta egiak ezagutzeko.

## Preserbatiboak banatzea

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak gazteen artean preserbatiboak banatuko ditu helburu birekin: batetik, sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunak prebenitzeko; eta bestetik, sexu-harremanetan preserbatiboak erabiltzearen garrantziaz kontzientziazteko.

## Lazo gorria

Bestalde, egun horietan zehar, Txorierriko Udal guztiek lazo gorria jarriko dute euren balkoi nagusian, egun hori ikusgarri egiteko.

## ExpoSIDA erakusketa

Aurten, hiesaren inguruan azken 30 urteotan egin diren kanpainen historiari buruzko erakusketa egongo da ikusgai Sondikako Gaztelekuan eta Loiuko Gaztelekuan azaroaren 25etik abenduaren 4ra arte.



## GIBARI BURUZKO MITO ETA EGIA BATZUK

MITOAK	EGIA
GIBa EZ da transmititzen ahoaren bidezko sexu-harremanen bidez	Semenak eta baginako jarioek GIB kontzentrazio altua dute. Zauriren bat irekita badago, arrisku egoera dakarte
GIBa duen pertsona batek elikagaiak manipulatzeko arrisku handia dakar	GIBa hil egiten da airea ukitzen duenean
GIBa duen pertsona batek koska egin duen elikagai bera jatea, birusa kutsatzeko modu bat da	Listuaren bitartez ez da birusa transmititzen
GIBa homosexualak baino ezin ditu kutsatu	Guztiok gara ahulak GIBaren aurrean, neska zein mutila izan
Ezin da GIBaren birusa hartu babesik gabe izandako lehenengo sexu-harremanean	Babesik gabe (preserbatiborik gabe) eginez gero, beti dago kutsatzeko arriskua



# EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2016

## AURTEN LEZAMAN

azaroak asteartea

# 29

ESKOLAK

### "HOR KONPON MARIANTON"

Antzerkia,  
7-8-9 URTEKOAK  
9:30 / 11:00



abenduak ostirala

# 2

EKIDAZU ABESBATZA  
19:00 (elizan)



### BERTSO SAIOA

Etxahun Lekue, Sebastian Lizaso, Iratxe Ibarra eta Jone Uribe.  
Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea  
19:10 (elizan)



### TABERNA IBILTARIA

20:15etik aurrera, kalez kale, elizatik hasita

azaroak asteazkena

# 30

ESKOLAK



"TOR MAGOA"  
10-11 URTEKOAK  
9:30 / 11:00

abenduak larunbata

# 3



### UMEENTZAKO SAIOA

"LIBERTIA" antzezlana,  
Hortzmuga taldearen eskutik  
18:00etan, frontoian



### "SARE SOZIALEN GARRANTZIA ETA ARRISKUAK"

Hitzaldia, Jon Gómezen eskutik  
Institutua (4. mailako guztiak)



### KHERAU TALDEA

Euskal folk akustikoa  
19:30ean, elizan

abenduak osteguna

# 1

ESKOLAK

### PATXIN ETA POTXIN

Pailazoak  
4-5-6 URTEKOAK  
9:30 / 11:00



abenduak igandea

# 4



### LEZAMAKO ONDAREA EZAGUTZEN

Lezaman zehar ibilaldia, Lezamako Asier Saenz adituaren eskutik  
11:00etan, udaletxeko plazatik hasita

# “Txorierri’ izena gustau jatalako nago hemen”

FERNANDO PÉREZ | Zamudioko familia-medikua

Fernando Pérez Vianak 45 urte emon dauz medikuntzan eta azken 25ak Zamudioko anbulatorioan, familia-mediku lanetan. Hain pozik dagoz zamudioztarrak beragaz ezen aurtengo Sanmartinetan omenaldia egin eutsien herriko plazan eta jaietako pregoia bota eban. Azaroaren 25ean jubilatutako, baina horrek ez dau geldirik itxiko. Koperante joango da atzerrira, behartsuei lagunduten, ahal dauan moduan.



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

### Argi zeunkan hasieratik medikua izan nahi zenduala?

Ez hainbeste, aitaren nahia ingeniari industrialia izatea zan eta horretan hasi nitzan. Lehen ebaluazioan asignatura bakarra gainditu neban. Ingeniaritza ez zan niretzat. Medikua izan nahi neban, eta 19 urte nituala mediku-ikasketetan hasi nintzan. Uste baino denpora gehiago emon neban ikasten: zortzi urte. Tartean soldadutza egin behar izan neban. Halan da be, lan hau bokazionala eta aberasgarria da niretzat.

### Ez zara betidanik familia-medikua izan.

Ni ospitaletik kanpoko larrialdietan izan nintzan beharrea hasieran, bai Sestaon, bai Areetan. Bederatzi hilebeteko kontratua daukien bitartekotasunak dira, behin behineko lan-kontratuak.

### Hortik familia-mediku izatera igaro zinan.

Bai, lan egonkorragoa zan. Oposaketea egin eta gainditu egin neban. Modalidade honetan, medikuak gauza gehiago egin leikez, frogak eskatu leikez eta medizina integralagoa landu leike: medikuntza fisikoa, mentala eta batzutan baita espirituala be egiten dogu.

### Erreferenterik badaukazu medikuntzan?

Alde batetik, Bilboko Santa Marina ospitalean Reinaldo Llorcarekin egin neban lan. Oso gogorra eta zorrotza izan zan nigaz, baina asko ikasi neban bera-



*“Familia-medikuok medikuntza fisikoa, mentala eta batzutan baita espirituala be egiten dogu”*

gaz. Beste alde batetik, Kardiologia esparruan Iñaki Lekuonagaz lan egiteko aukera izan dot, Galdakaoko kardiologia ataleko burua. Gauza asko irakatsi eustazan.

### Zelakoa zan lan barri hori?

Gogoratzen dot hasieran ez gendua-  
la ia denporarik gaixoentzat: ordu bi eta

erdiko kontsultak 30-40 paziente ikusteko. Gaixo bakoxtari hiru minutu eskaintzen geuntsezan gehienez jota eta gogoratzen dot zentroko sotoan, erratzen artean, egin nebazala kontsultak garai baten. Oso gogorra zan. Aurrerago zazpi orduko kontsultak eskatzen hasi ziran eta gaur hamar minutuko kontsultak daukaguz.

### Zergaitik Txorierrin eta ez beste nonon?

‘Txorierrin’ izena asko gustau jatan (barreak). Egia esateko, Zamudio Sanmartinengatik ezagutu neban, 18 urte nituzala. Laupa bost lagunekin parrandan etorri ginan odolosteak jaten. Oso ondo pasatu genduan, baina gau hartan inork ez eban ligau (barreak).

**Humaning**  
Garapen eta Transformazio  
Pertsonaleko Zentroa  
Astintze 2, 1. C  
48160 DERIO  
606.39.33.45  
[www.humaning.es](http://www.humaning.es)  
[info@humaning.es](mailto:info@humaning.es)

*Kabinete terapeutikoa*  
Deskodetze Biologikoa  
Coaching Emozionala  
Hazkunde pertsonala  
Psikologia Positiboa  
Obesitatea eta gehiegizko pisua  
Trebakuntza-zentroa

*Ikastaroak*  
YOGA  
PILATESA  
MINDFULNESS

*“Hasikeran ordu bi eta erdiko kontsultak genduazan 30-40 paziente ikusteko”*

**Zer egiten dau familia-mediku batek egunero?**

Nire kasuan, ordubete lehenago nator anbulatoriora kontsultak prestateko: historiak birpasatu eta frogak aztertu egin behar dira. Lehenengo ordu erdian medizina produktuen ordezkariak datoz anbulatoriora, eta 08:30ean kontsultak hasten doguz. Azken orduak gaixo ezin-

*“Gaztelaniaz ‘médico de cabecera’ esaten da, medikua, etxeetara heltzean gaixoaren oheburuan jartzen dalako”*

duak bisitateko dira, gaztelaniazko ‘médico de cabecera’ zentzu literalean ‘Oheburuko medikua’ litzateke, medikua, etxeetara heltzean gaixoaren oheburuan jartzen diralako. Gaur egun etxe-mediku edo familia-medikua esaten jakie.

**Kontaktuz bitxirik badaukozu?**

Ez dot inoiz ahaztuko Derion guardietan nembilen lehen urteetan etxebizitza

*“Nire pazienteak maite dodaz eta ahal dodan heinean lagunduten ahalegintzen naz”*

batetik dei bat jaso genduan eguna. Esandako tokira heldu nintzan, maletagaz. Lehen pisura igon nebanean, emakume batek egongelara eraman ninduan, telebista erakutsi eta “hemen dozu” esan eustan. Emakume hark telebista teknikaria nintzala uste eban (barreak).

**Zamudiok omendu egin zintuan Sanmartinetan. Zelangoa izan zan?**

Oso hunkigarria. Jende asko egon zan plazan nigaz eta nire senideakaz. Danetarik egon zan bertan: musikea, aurrekua, hitzaldia eta bertso zoragarriak. Hainbat argazki egin ziran eta ondoren Aretxarte hotelera joan ginan 140 lagun inguru. Eskerrak emon gura neuskioz herri zoragarri honi, sekulakoa izan zan. José Luis Padura alkate ohiak zera esan eustan: “Zamudioz tarren bizitzetan ezinhobeto integratu zara” eta eskertzekoa da, egia esateko. Nire pazienteak maite dodaz eta ahal dodan heinean lagunduten ahalegintzen naz. Oso aberasgarria da eta poz-pez jubilau naz.

**Orain bizitzako kapitulu barria hasiko dozu**

Orain hiru urte Médicos Sin Fronteras GKEarekin kontaktuan jarri nintzan. Euren bazkidea izan naz betidanik, baina gauza barri bat proposateko zan: nire helburua urte batez laguntza behar dabezan herrialdeetara joan eta eurengaitik ahal bezain beste egitea da, medikuntzaren esparruan beti be. Bertan familia-mediku eskari izugarria daukie-ta.

**Zein herrialdetan pentsatu dozu?**

Ez da nire erabagia, GKEak aukerak eskinitiko deustaz, baina gustukoak dodaz Siria eta Turkiako muga, Kongoko Errepublikak, Hegoaldeko Sudan, Nigeria, Haiti, Colombia, Ukraina eta Iparraldeko Yemen. Siria eta Turkiako mugan 100.000 pertsonako kanpamentua dago eta Siria - Jordaniakoan beste hainbeste.

**Zer nolako betekizunak izan behar dira bertara joateko?**

Fisikoki eta psikikoki prest egon behar da. Horrezaz gain, gaixotasun kutsakorre-



*“Jubilatu naz,  
baina ez  
dot geldirik egon  
gura. Ez dot  
lurra jo gura”*

tan eta inglesean birziklatu behar nazela esan deustie.

**Eta familia be prest daukozu?**

Semeak abentura horren alde dagoz; emaztea, ikaratuta. Kooperante behar horreetan, segurtasun neurriak dagoz eta GKEak dinoana berbaz-berba bete behar da. Halanda be, blog bat sortuko dot eta noizbehinka abentura honen barri emoteko asmoa daukot.

**Jubilatzearena atxakia baino ez da, orduan...**

Jubilatu naz, baina ez dot geldirik egon nahi. Ez dot lurra jo gura eta jendea laguntzen jarraitu nahi dot. Atzerritik bueltan, bidaiatea eta familia eta lagunakaz egotea gustauko litzakit.



 **TXORIERRIKO UDALA**  
**EVSKALTEGIA**

**16-17 IKASTURTEA**

**MAILAK**

- Habeko Curriculum berriko Azpimaila guztiak
- Beharrianetara egokitutako taldeak:  
Osakidetza, IVAP, gurasoak, hezkuntza, mintzamena....

**NORENTZAT**

- 16 urtetik gorakoentzat

**ERRITMOAK**

- Astean 10/7, 5/6/5... ordukoak
- Urtariletik ekainera
- Autoikaskuntza ikastaroak-BOGA

**MATRIKULA ZABALIK**

- Urtarrilaren 9tik 23ra

**DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK**

- Langabetuentzako eta erreturatuentzako beren beregi diruz lagundutako ikastaroak

**Matrikula zabalik**

 Herriko Plaza, 3 - DERIO  Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38  [euskaltegia@txorierri.eu](mailto:euskaltegia@txorierri.eu)

# Lezama, euskeraren hiriburua

“Jarraikiz luki zaharrak atzemoten dau oiloa”, dino atsotitz zaharrak, pertseberantzia adierazoteko. Euskaltzaleok beste inor baino saiatuagoak gara eta abenduaren 3a, Euskeraren Nazioarteko Eguna, aukera ezin hobea da geure hizkuntza barriro aldarrikatzeko. Ganera, Txorierriko euskera alkarteek eta Zerbitzuen Mankomunitateak ekitaldiz jositako egitaraua prestatu dabe, batez be Lezaman, euskeraren hiriburua aurten.

Txorierriko euskera alkarteek alkarregaz ospatuko dabe Euskeraren Eguna. Horretarako, abenduaren 4an, domekan, euskaltzaleak Baserri Antzokian bilduko dira bertan bazkaltzeko eta ondo pasetako. “Txorierriko euskaltzaleok badogu aurten zerbait berezia ospatzeko: Baserri Antzokia, euskeraren arnas gunea, alkarregaz estreinatzea. Alkartuta, poza eta etorkizuna indartsuagoa da-eta” esan deuskue TOTOAN Txorierriko Euskera Alkarteen Federazinoko lagunek. Helduek 20 euro ordaindu behar izango dabe eta umeek, 10 euro. Arrastian, musika talde batek girotuko dau euskaltzaleen bazkalondoa.

Bestetik, azaroaren 29an, Joseba Tapiak “Larreko Eskola, trikitixarekin gozatzeko apunteak” berbaldia emongo dau Larrabetzun, Arrekikili alkartearen eskutik. Trikitilariak Anguleri Kultur Etxean izango da, 19:00etan. Egun batzuk beranduago, abenduaren 1ean, beste hitzaldi bat antolatu dabe Arrekikilikoek. Koldo Zuazo ikerlariak Larrabetzuko euskarari buruz egingo dau berba Anguleri



Kultur Etxean, 19:00etan. Ganera, Euskeraren Egunaren aurreko astean zehar, Larrabetzun euskerea erabiltzen daben lagunuen argazki erakusketea egongo da ikusgai Angulerin.

Lezaman, Zorritzetan euskera alkartea beharrean ibili da Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateagaz batera eta

berton antolatuko dira ekitaldi gehienak. Alde batetik, eskola-umeei zuzendutako ekintzak aitatu behar dira. Azaroaren 29an, martitzenean, Hodei Unzuetak eta Oskar Estangak *Hor Konpon Marianon* antzezlan aurreratu deuse 7 urtetik 9 urtera bitarteko umeei, frontoian. Hurrengo egunean, goizean, Tor Magoak

## Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: 30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**AIKOR! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behe - 48170 - Zamudio**



saio bi egingo ditu, 10-11 urteko umeen aurrean; eta arrastian, Jon Gómez komunikatzaileak "Sare sozialen garrantzia eta arriskuak" izena dauen berbaldia eskiniho deitso laugarren mailako ikasleei, institututan. Abenduaren 1ean, eguenean, 4 urtetik 6 urtera bitarteko neska-mutilek Patxin eta Potxin pailazoak zuzenean ikusteko aukerea eukiko dabe.

Asteburuan, ekintza orokorrak antolatuko dira. Abenduaren 2an, barikuan, Eki-dazu Lezamako abesbatzak ongi etorria emongo deitso bertso-saioari, eleizan. Etxahun Lekuek, Sebastián Lizasok, Iratxe Ibarrek eta Jone Uriak hartuko dabe parte horretan. Ostean, Taberna Ibiltaria musika taldeak betiko kantak abestuko ditu Lezamako kaleetatik. Abenduaren 3an, zapatuan, Hortzmuga taldeak *Libertia* umeentzako antzezlan taularatuko dau frontoian, eta ostean Kherau taldeak kontzertu akustikoa eskiniho dau eleizan. Egitaraua biribiltzeko, abenduaren 4an, domekan, Asier Sañzek ibilaldi bat gidatuko dau Lezaman zehar, herriko ondarea ezagutzera emoteko.

**TABERNA GAZTEDEI**  
Eguneko menuak  
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**LEANDRO LANDETA**

**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

## Bazkidetza kanpainak

Tximintx eta Altzora, Derioko eta Sondikako euskera alkarteak hurrenez hurren, bazkidetza kanpaina baten murgildu dira eta eurek be egingo dabe bat Euskararen Egunaren ospakizunakaz, zelan ez. Esate baterako, Tximintx alkarteak hainbat ekintza antolauko dauz bazkideak lortzeko asmoagaz, baina garrantzitsuena abenduaren 3an egingo dabe, Euskararen Egunean hain zuzen be. "Kultur Birikan, 11:00etan, Derio euskalduna irudikatze tailerra egingo dogu. Ostean, 12:00etan, Sollube kalera joango gara umeentzako txontxongiloez goatzera eta 13:30etik aurrera, ekitaldi berezi bat egingo dogu. Hara hurbiltzen direnek post-it bat ekarri beharko dabe eta han zerbait euskeraz idatzi, bakotxak gura dauena", esan deuskue Tximintxeko kideek.

"Tximintx alkarteak urte asko daroaz beharrea herria euskaldunago egiten: berbalagun proiektua, antzerki eskola, kultur ekitaldiak, AIKORI! aldizkaria, Baserri Antzokia... Askok egin dogu, baina asko dogu oraindik egiteko, asko. Derio euskaldunago egiteko bidean pauso txiki bat da Tximintx kide egitea. Eta bide horretan derioztar euskaldun guztiak gura doguz, guztiok alkarregaz, alkarlanean, laguntzen, parte hartzen, Derio euskalduna eraikitzen".



Kanpaina horretan, Tximintxekoek deialdia egiten deitsee derioztarrei, alkartearen bazkide izateko. "Bazkide gura zaitugu, eta parte-hartzaile. Bazkide gura zaitugu, eta aktibo. Bazkide gura zaitugu, eta eredu. Bakotxak ahal dauenetik, bakotxak gura dauenetik, bakotxak gustuko dauenetik. Dirua emonaz, edo euskeraz arituz, edo Tximintxeko ekintzetan parte hartzen, edo zergaitik ez, Tximintxi proposamenak egiten eta alkartearen dinamikan sartzten. Derion euskera gehiago entzutea dalako helburua, Derion euskaldunok erosoago aritzea, Tximintx Derioko euskaldunen tresna indartsuagoa izatea".

### Altzora

Altzora alkarteak be gura dau bazkideak lortu. Euren berbetan, "Altzora sondikoztar euskaldunen altzoa da irekia eta zabal-zabala euskaldun eta euskaltzaleentzat. Kantaldi baten, zinean, bertso-saio baten, bazkari baten, trikopeteo baten... Edozein atxakia da ona euskaldunak batzeko". Altzora alkarteagaz behar egiteko aukera asko dagoz. "Batzarretara etorri, ideia barriak ekarri, urteko eginkizunetan laguntza emon... Altzoratar izanda, Txorierriko beste herrietako alkartekoakaz batera, euskeraren amarauna sendoago izan daiten lagunduko dozu".

# Kirol ezohikoen frikia



EGOITZ CAMPO GONZÁLEZ | euskara irakaslea

2006an, Paul Hildreth kirol monitore ingelesak VXa edo Rock it Ball izeneko kirola asmatu zuen, Lacrossetik, belarreko hockeytik eta squashtik edan duena. Egoitz Campo sondikoztarrak horren berri izan zuen interneten zebilela, eta harremanetan jarri zen Hildrethekin. Urriaren 8an eta 9an, Europako Lehen Txapelketa jokatu zen Bilbon. Bertan izan ziren Italia, Ingalaterra eta Euskal Herriko taldeak.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

**Historialaria eta Derioko Txepetxa euskaltegiko irakaslea. Zer dela eta ezohiko kiroletarako grina hau?**

Betidanik gustatu zait gauza berriak eta ezohikoak probatzea. Gainerako kirolak ezagunegiak dira gure artean, eta talde ugari daude, Euskal Herrian oso garatuak. Pertsona abenturazalea, frikia, naiz eta protagonismo grina daukat (barreak). Ekintzak antolatzea eta jendea zorratzea asko gustatzen zait. Dinamizatzaile ona naizela uste dut. Bestelako kirol arraroe-

tan egondakoa naiz: ring tennis (badminton antzeko kirol bat, frisbi antzeko batekin jokatzeko dena), mikrofutsal-a (areto-futbola, ate nimitsoekin)...

**Antolakuntza eta Egoitz Campo: loturarik dago?**

Ez da nire ezaugarririk adierazgarriena, baina arlo honetan ondo moldatzen naiz. Gogorik badago, edozer egin daiteke. Gainera, jarduera hauek zaletasun bezala egiten ditut; ez ditut sekula ogibide bezala planteatu. Azken batean, asteburuetan egiten dugun kirola da, eta ez beti.

**Zer da VXa edo Rock it Ball-a?**

*Euskal Herrian momentuz VX taldea badago, baina federaziorik ez*

*Stick hauek, hockeykoak ez bezala, mutur bakoitzean eskuz egindako saskia dute*

Bost pilotarekin jokatzeko delako eta hamar jokalariko partidua direlako deitzen da VX. Jokoaren helburua da stick berezi batekin tenniseko pilota hartzea eta aurkariari jaurtitzeko. Aurkaria kolpatu eta pilota harrapatzen ez badu, jaurtitzailak puntu bat eskuratzen du; pilota harrapatzen badu, aurkariak puntu bi eskuratzen ditu. Zelai erreka eta jaurtiketa-kirolen arteko nahasketa da. Teorikoki lacrosse, belarreko hockeyaren eta squash kirolen arteko hibridoa da. Interesgarria da jokalaria etengabe mugimenduan daudelako eta hockeyan erabiltzen diren stick antzekoak erabiltzen dituztelako. Stick hauek, hockeykoak ez bezala, eskuz egindako saski bat dute mutur bakoitzean. Modalitate bi daude: taldekoa, saskibaloia pistetan edo frontoietan jokatzeko dena, eta banakakoa, bi pertsona baino ez daudenez, Squash pistetan egiten direnak. Gu normalean Bilboko Olabeaga frontoian jokatzeko dugu, doan.

**Zelan ezagutu zenuen kirola?**

Internet bidez. Kirolaren berri izan bezain laster, interesa piztu zitzaidan eta asmatzailea eta antolakuntzakoekin harremanetan jarri nintzen. VX edo Rock it Ball-a berez kirol minorizatua da, duela hamar urte Paul Hildreth ingelesak sortua. Kirol monitore zen eta kirol berria egitea bururatu zitzaion. Joan den urtean, harremanetan jarri nintzen Paulekin, eta urrian lehenengo aldiz Bilbora etorri zen, antolakuntzako beste bi pertsonekin batera, VXeko mundu mailako ordezkariak.

**Zer behar da jokatzeko?**

Bost joklariko talde bi, stickak eta tennisean erabiltzen denaren antzeko pilota



bat, *soft* modukoa (*biguna*, euskaraz). Kontuan izan behar dugu pilota horiek aurkariet jaurti behar zaizkiela eta jokalariek ez dutela minik hartu behar. Horrez gain, zelai itxi bat behar da jokatzeko, eta, sabaia badauka, askoz hobe.

#### Urriari Europako Lehenengo Txapelketa egin zen Bilbon, lehen aldiz.

Bertara hurbiltzea proposatu nion Pauli, eta baietz esan zuen. Ingelesen talde bi eta italiarren beste bi etorri ziren. Ni Euskal Herriko taldearekin eta antolakuntzan izan nintzen. Ugarteko frontoian izan ginen taldeko modalitatean, eta Deustuko udal-kiroldegiko squash pistan, banakakoa jokatzeko.

#### Ofiziala da kirola?

Ez da olinpikoa, ezta federatua ere, baina ofiziala bada. Paul Hildreth gaur egun kirolaren presidentea da mundu mailan, eta jo eta su dabil kirola hedatzen. Dagoeneko, Indian, Italian, Ingalaterran, Ugandan eta AEBetan sortu ditu VXaren federazioak. Euskal Herrian momentuz taldea badago, baina federaziorik ez.

#### Zaletasunik al dago Euskal Herrian edo Estatu mailan?



Euskal Herrian, dakidanez, ez. Estatu Mailan, Alacanten badago VX talde bat. Bertako batek denboraldi bat eman zuen York-en (Ingalaterra) ikasten, eta VXeko taldeak eta jokalaria ezagutu zituen. Etxera itzuli zenean, VX taldea sortu zuen.

#### Zein da zuen helburua?

Jokatzeko jarraitzea eta, munduko federazioak eskatzen badigu, Bilbon izandakoa bezalako txapelketetan parte hartzea. Zaila da Euskal Herrian era honetako kirol baten federazioa egitea, baina kultura-elkartea egitea posibleagoa da. Batek daki.

**ZAMUDIOKO KAMARA KORALA**

Aizu... ume zein gazte!  
Abestuz gosatzen baduzu eta musika gustatzen bazaizu...

**Z K K Zatoz gurekin !!**



657775911 [www.zamudiokokamarakorala.eu](http://www.zamudiokokamarakorala.eu)  
idazkaritza@zamudiokokamarakorala.eu



## Jende zaparrada, Txorierriko azoketan

*a: Jon Goikouria eta Juanjo Ortíz*

Aurten bai han eta bai hemen: Zamudioko eta Sondikako azoketan erruz bota zuen ura. Hala ere, sugandilek ez bezala, jendea etxetik irten eta urteroko zita hauei etekina ateratzen jakin zuen.

Azaroaren 5ean eta 6an, Nekazaritza eta Abeltzaintzako XXXI. Azoka, Bizkaiko Limu-sin Txapelketa eta IV. Txokolate Azoka egin ziren Zamudion. Guztira, 90 postu

egon ziren barazkiz, frutaz, gazta, eztiz, ogiz... beteta. Zapatua gozozaleentzat prestatu zen. Berrikuntza bezala, lehenengo aldiz Iváñez turroiak egon ziren, Bilboko erreferente nagusiak: turroi gogorra, biguna, opilak, polboroiak, gloriak, txakur-mazapanak... Bertan izan zen Eladio Iváñez, Alde Zaharrean daukan dendaren ordezkaria. Txokolate eta Gozoen IV. Azokan hainbat izen ospetsu ikusi ahal izan ziren: Mendaro Txokolateak, Gorrotxategi (Tolosa), Lorea





Trufak (Karrantza)... Horrez gain, azokan Larra-betzuko ohikoa den Asier Bengoa ere izan zen bere bizkotxo, madalena, erroskillak eta ogiekin, besteak beste.

Hurrengo asteburuko domekan, Sondikako Nekazaritza eta Eskulangintza Azoka egin zen. Tren geltokiko aparkalekuko karpn baserri munduko 35 ekoizleen 40 erakusleho ikusi ahal izan ziren. Eztia, barazkiak, euskal pastela, Txorierriko txakolina, gaztak, arraultzak... askotariko produktua ikusi ahal izan ziren bertan. Aurtengo berrikuntza gisa, 12:00etatik 14:00etara Udalak ekimen bi egin zituen: bata, taloen inguruko tailerra, eta bestea euskara bultzatzearen inguruko Tantz Tanta Itsasoa Bete Arte ekimena. Artisautzaren atala Ikurriña enparantz egin zen, 20 postuarekin.





**sarreraren salmenta**  
www.bbkk.es  
bbk



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefonoa 94.453.64.13

**SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN**  
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

## ANTZERKIA

**MARIKIXKUR ETA HIRU HARTZAK**  
Glu Glu Producciones  
Musikala, euskaraz  
Umeentzat (3 urtetik gora)  
Abenduak 18, 17:00  
Prezioa: 6 €



## ZINEA



**NO CULPES AL KARMA**  
73' AG (2D)  
Abenduak 4, 17:00



**CUERVITO CALCETIN LA GRAN CARRERA**  
73' AG (2D)  
Abenduak 4, 17:00



**ANIMALES FANTÁSTICOS Y DONDE ENCONTRARLOS**  
140' EG-7 (2D)  
Abenduak 11, 17:00



**JACK REACHER: NUNCA VUELVAS ATRAS**  
118' EG-12 (2D)  
Abenduak 11, 19:30



**LA REINA DE ESPAÑA**  
128' EG-7 (2D)  
Abenduak 18, 19:30

**ETA URTARRILEAN...**  
VAIANA  
VILLAVICIOSA DE AL LADO  
IGELAK  
¡CANTA!  
ROGUE ONE: UNA HISTORIA DE STAR WARS

2D: 4 €    3D: 6 €

\*onlari: produktoraren beldur-baldin, ezberre programazioak, aldaketak jasan ditzake

# “Krisi garaian ogia ezinbestekoa da;

TOTI MARTINEZ DE LEZEA | idazlea

Literaturaren egoera ona izan ez arren, Larrabetzuko Toti Martínez de Lezea idazle emankorrek liburu bi kaleratuko ditu urte bukaera baino lehen: alde batetik, Palestinara eramango gaitu, *Esnea eta Eztizko Lurra*, abenturen eleberri historiko umoretsuarekin. Bestetik, haurrentzako Nur bildumaren 12. zenbakia idatzi berri du, bildumaren azken istoria, agian. Bi obrek etxeko liburutegiko 10.000 liburu baino gehiagoren parte izatera igaroko dira. Irudimenak mugarik ez duela diote; etxeko apalategiek bai, antza.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

## **Esnea eta Eztizko Lurra argitaratuko duzu abenduan. Zein da liburuaren istorioa?**

Antoñanako (Araba) Ianiz Ruiz eta Barbarineko (Lizarra) Martino euskaldunen abentura dugu honako hau. Nafarroako Teobaldo I erregearen ejertzitoarekin Palestinara abiatzen dira, kruzada batera. Bataila ostean, bi euskaldun hauek begiak ireki eta guda osteko hildakoez, putreez eta gorpuen lapurrez inguraturik itzartzen dira, padura batean. Batek kolpea hartu omen du buruan; bestea zauriturik dago. Desorientatuta dabil-tza: ez dakite non dauden, zelan heldu diren bertara, nora joan... Bataila ostean, ejertzitoez bertan bera uzten zituzten hildakoen gorpuak, eta bi pertsonaien helburua Palestinatik etxera bueltatzea da, baina ez daukate dirurik ezta mediorik ere. Orduan, garai hartan zegoen salerosketa nagusiaz baliatuko dira: altxor faltsuak. Barre asko egin dut obra honekin. Abenturen eleberri historikoa da, umorearekin kontatutakoa. Bi pertsonaiek hemengo jendeari ziria sartzen diete: San Jorgeko dragoiaren letagin bat Sangesako bati saldu diot. Sangesakoek jakingo balute...

### **Zeintzuk gai jorratzen dituzu?**

Hiru gauza kontatu ditut: lehenengo, altxorren faltsutasuna, orokorrean. Beste ideia bat konkista eta kruzaden ideia zentzugabea: European toki santuen liberazioa bezala saldu zuten ideia da, baina guzti horren atzean, lurraldeez eta altxorrez jabetzearen helburua dago. Horrexegatik esaten zaio Palestinari esnea eta eztizko lurra. Hirugarren ideia hurrengoa da: jendeak, jatorriak, kulturak



*“Hitzak bateratzeagatik ez gara idazleak: irudimena eta trebezia behar dira”*

eta hizkuntzak ezelangoa izan arren, elkarren artean ondo ulertzen dute. Agintariak dira gatazkaren sortzaile bakarrak. Eleberriaren kasuan, Jerusalemen 200 judu daude; Tuteran, 400; eta Damaskon, 3.000-4.000 inguru. Damaskon sinagogak, meziketak eta kristauen elizak elkarbizi dira. Inork ez dio albokoari erasorik egiten sinismen ezberdinak izateagatik.

### **Zerk egiten du berezi zure azken lan hori?**

Umorea eta etxetik irtetearen ideia. Badirudi etxetik irtetearen beldurra dau-


*“Guda Zibileko biktima ahaztuen inguruko liburuak idazten hasi naiz”*

kagula. Eta irteten garen honetan, Salamancara barik, nora eta Palestinara goaz! (barreak). Garai hartako altxorrek gaur egungo marihuanarekin alderatu litezke: diru asko mugitu zuten. Lurraldeak gudak egiten zituzten altxor bakarragatik. Azken batean, altxorrek erromesak zekartzaten, eta erromesek, dirua. Betiko kontua.

### **Zelakoa da dokumentazio lana hola eleberriak sortzeko?**

Lan asko dago atzean. Saiakerak irakurtzen ditut, ikasi egiten dut, alorrean trebatuak diren lagunak dauzkatzat... Azken horiei kontsultak egiten dizkiet: zenbat

# liburuak ez”



denbora eman daiteke Bartzelonatik Acreko San Juanera joateko?, zein mota-tako itsasontzian? Galeoian, galeotean, koka batean...?, Mediterraneoko ekaitzek ontziak hondoratzen zituzten?, zein mota-tako txanponak erabiltzen dira Palestinan?... Interneta ere erabili dut, batez ere geografiarako. Sirian izan naiz eta ondo ezagutzen dut, baina Palestina eta Israel orokorrean, ez. Google Maps-ek asko laguntzen du. Geografia eta orografia eza-gutzea berebizikoa da.

**Nur-en 12. liburua kaleratuko duzu aurten ere. Noiz arte?**

*“Barre asko egin dut obra honekin. Abenturen eleberri historikoa da, umorearekin kontatutakoa”*

Seigarren zenbakitik nabil Nur-en bil-duma idazteari noiz utziko diodan pentsa-tzen. Haurrek idazten didate, liburu gehia-go eskatzen. Liburu horiek nire bilobagatik idazten ditut: alaba eta suhia Txinara joan ziren berarekin, eta neskatxoarekin zein bertako sustraiekin harremana mantentze-arren hasi nintzen Nurrekin. Baina Nur-ek neskatxoa izateari utzi zion.

### Aurrerapenik datorren urterako?

*Y Todos Callaron* eleberriaren ildotik doan istorioa idazten hasi naiz, Guda Zi-bileko biktima zibilen, anonimoen, desa-gertutakoen eta sekula barkamenik eskatu ez zaien biktima ahaztuen ingurukoa. Gerra pairatu zuten jende anonimoen isto-riok kontatuko ditut bertan. Familia ba-rruan zein kanpoan, istorio pilo bat daukat gordeta. Bestalde, Endaren bigarren zatia idatziko dut: VI. mendean dago girotuta, tribuak zeuden, etengabe borrokan zeu-denak: Iturixoak, Aturioak, Euskoak, Ilu-nak... Horiek elkartu eta iparraldeko Fran-koen eta hegoaldeko Godoen aurka borro-katuko dira. Homerok Iliadarekin egin zuen bezalaxe, aldaketa batzuekin: Ezpir-tuen Oihana (Irati basoa), Jentilen Haizea-ren Mendia (Añamendi), Mendi Sakratua (Elori)... Bigarren eleberria Txindoki eta Aralarren zonaldean dago kokatuta.

### Zelan daukate literaturako hasibe-riek lehen pausua emateko?

Egoera ez da batere ona. Eskaintza es-karia baino handiagoa da, eta krisi garaian ogia ezinbestekoa da; liburuak ez. Hala ere, ni hasi nintzenez ere ez zegoen batere ondo. Hasiera-hasieratik gogor egin behar da lan aurrera egiteko, baina posiblea da. Literaturan hasi nintzenez inork ez zuen nire alde apustu egin, baina idaztea erabat gustatzen zitzaidan, eta jarraitu egin nuen. Harrezgeroztik hementxe nago, inolako la-guntzarik gabe. Hala ere, hitzak bateratze-agatik ez gara idazleak: bost urte dauzka-gunetik hitzak batzen irakasten digute. Iru-dimena behar da, eta ideiak modu eragin-korrean kontatzen jakitea.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zehaztu BERRIAK  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajeak

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika

Tranmerri etorbidea, 9 - Larra | Artea eta enpresa | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

10. URTEBERRIA

**BOLALEKU**  
JATETXEA

Hainbat menu  
Karta  
Ospakizunak

• BOLAPARK

Garaioltza, 1 - LEZAMA  
94 455 41 10  
Jantoki Facebooken

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Teléfono 94 454 07 96 Mungai etorbidea, 25  
Fax 94 454 14 12 48160 DERIO

t i k  
t a k

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria

9€

Bestorena 5, Bahea 48160 DERIO  
T: 94 454 55 55

**HAUR-MODA**

**TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35

# Emakume xuxurlarien kalabaza

## KALABAZAN KULTUR EKIMENAK

Hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila... Loiuko plazan. Ipuinetako azken esaldia izan ohi da, baina oraingo honetan, ordea, proiektu berritzaile baten istorioaren lehengo hitz bihurtu da: Kalabazan. Berez, esaldiak esanahi asko izan ditzake, eta horietako bat bertan edozer gauza sar daitekeela izan daiteke: artea, euskara, literatura... Horren haritik, Loiuko emakume ekintzaile bik eta getxoxtar batek euren proiektu berezia aurkeztu nahi izan digute.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Irati Astobietak betidanik nahi zuen kultura eta artea nolabait uztartu, eta unibertsitatean Jone Ibarretxe ezagutu zuen. Garazi Basterretxea Jonen kuadrillakoa da eta ideien bila zebiltzala Getxoko Wanted lehiaketan parte hartzeko ideia proposatu zien lankideei, gazteen ekimen berritzaileak aurkezteko lehiaketa. Aurkeztu eta baita irabazi ere, Kalabazaneko neskek Booktrailer Lehiaketa proiektuaren saria kalabazan.com webgunea sortu eta kudeatzeko erabili zuten.

Horrelaxe jaio zen Kalabazan Kultur Ekimenak, ideia berritzaile batetik. "Diru laguntza murrizta izan arren, kontaktu ugari egiteko balio izan zigun: Udalekin, teknikariek... harremanetan jartzeko aukera eman zigun; momentura arte ez genituen kontaktuak egin genituen", azaldu du Iratik.

Helburu nagusia artea eta kultura gazteen artean sustatzea da, euskara euren esparruetara hurbilduz, beronen erabilera bultzatzeko. Horrez gain, gazteen irakurzaletasuna sustatzea, euren esparru naturala den teknologia berrien eta literaturarena lotzea, gazteak literaturaren sustatzaile bihurtzea eta literaturarekiko interesa piztea. Horrez gain, euren sormena bultzatzea eta artearen bidez gazteekin gaitasun emozionala lantzea. Iratik Haur Hezkuntza eta Arte Ederretako ikasketak dauzka eta Uribe Kostako AEKn lan egiten du; Garazik Euskal Filologiakoak eta Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroa dauka eta Algortako Gaztelekuan lan egiten du; eta Jonek Arte Ederrak eta Komunikazioaren inguruko ikasketak dauzka eta EITBn lan egin du. Hiru lagunak kulturako esparru ezberdinetatik datoz, baina euren baturak esparru handi bat betetzea ahalbidetzen die.

Momentu honetan, urtarrilean hasiko diren Durangoko eta Getxoko Booktrailer lehiaketak kudeatzen ari dira Kalabazanekoak, eta aldi berean Leioako emakumeen inguruko dokumentala ari dira prestatzen. Azken proiektu hori Udalean egindako kontsulta batean jaio zen: "Zergatik ez dago emakumeen izenik herriko kaleetan?". Antza, Udalaren erantzuna emakume garrantzitsu gutxi zeudela izan zen, eta horren haritik dokumentala grabatzea erabaki zuten. Emakumeak biltzen hasi, eta hilabete honetan hasi ziren antolatzen Leioako Emakumeen Taldea.

*"Artea eta kultura gazteen artean sustatu nahi dugu, euskara euren esparruetara hurbilduz"*

rekin batera, baina kudeaketa Kalabazan-en kontura izan da. "Emakume oso interesgarriak daude Leioan: beraiek sortu zuten eskola, euren garrantzia lantegietan sekulakoa izan zen, erizainak baserriko emakumeak ziren... Istorio oso interesgarriak daude eta jendeak ez ditu eza gutzen", azaldu du Iratik. Grabaketak apirilean hasiko dituzte.

### Ezohiko tailerrak

Elkartearen berezitasunik nabarmena tailerren eskaintza da: izenak berez euren edukiak bezain deigarriak dira. Booktrailer tailerrak, izenak azaltzen duen bezala, filmen antzeko aurrerapean dira, baina liburuen ingurukoak. Bi minutu inguruko iraupena duten bideo piezak dira, zeinetan liburuaren pasarteak edota laburpena egiten dira. "Booktrailerren antzean sintesi eta kudeaketa lana dago", laburbildu du Garazik. Antzekoa gertatzen da Bideo poesia tailerrekin:



## “Durangoko eta Getxoko Booktrailer lehiaketak kudeatzen ari dira Kalabazanekoak”

helburua poesiak interpretatu ostean, bideo tekniken bidez irudi bihurtzea.

Olerki xuxurlatuak sentazioen mundura garamatzate. Berez, olerki estilo hau Frantzia jaio zen Les Souffleurs komunitatearen eskutik. Hiriko burrunbatik ihes egiteko, xuxurlariak olerkiak botatzen zituzten tutu batzuen bidez. Mirta Colangelo pedagogak olerki hauek Hego Amerikara eraman zituen eta eskoletan ezarri zituen. Normalean, xuxurlatzaile bi eta xuxurlatu bat behar dira.

Xuxurlatzaileek, eskuz egindako tutu biez baliatuz, olerkiak eta soinu efektuak xuxurlatzen dizkiete begiak itxita dauzkan xuxurlatuari. Belarrietatik era askotako soinuak eta sentazioak sortzen dizkiote xuxurlatuari, eta hasiera batean egoera konprometitua eman dezakeen xuxurlatuaren sentazioak biziki pizten ditu. Artearen bidez errealitatetik une batez ihes egiteko opari egokia da. “Tailerrak gazteei zuzentzen dizkiegu, batez ere eremu honetan ezer gutxi egiten delako. Ikus-entzunezkoak oso eraginkorrak eta erakargarriak izan daitezke, liburuak alde batera utzi gabe”, azaldu du Astobietak. Bistan da Kalabazanek literatura, kultura eta artea uztartzen dituela



eran arin batean, lastoa bezala. “Gazteek benetan eskertzen dute, euskararen, arte plastikoaren eta literaturaren esparruak arin lantzen dituztelako. Askotan ez dakite euren nahiak nola adierazi eta guk esparru hori eskaintzen diegu”, azaldu du Garazik.

Olerki xuxurlatuek eta bideo poesia tailerrek bidaiatzera eraman zituzten Kalabazaneko neskek 2015ean, eta Kalabazan Ibiltaria izeneko proiektuarekin Txile, Argentina eta Uruguayn lau hilabete eman zituzten tailer hauek zabaltzen. “Kaleetan eta antzerki jaialdietan izan ginen bertan egindako kontaktuekin”, azaldu du Garazik. “Gainera, bertan Celeste Agüero xuxurlaria ezagutu genuen, Color Susurro xuxurlatzaile taldekoa”.

Kalabazan bide propioa jorratzen ari da eta Euskal Herriko hainbat tokitan izan da kultur ekimen originalak antolatzen. “Markinan idazle baten liburuaren aurkezpenean izan ginen. Booktrailerra egin genion, eta aurkezpenaren bitartean olerkiak xuxurlatu genituen”, azaldu du Iratik. Txorierrin bizi arren, oraindik ez dute aukerarik izan bertako eskola eta aretoetan tailer hauek aurkezteko eta benetan gustatuko litzaieke. “Arte plastikoari ez zaie inolako garrantzirik ematen, eta ordu bat ematea tutuak fabrikatzen, ondoren olerkiak botatzeko. Asko gustatzen zaie gazteei”, laburbildu du Iratik. Olerki bat edonon egon daiteke, eta ez dago alderik beratu ahoz esatea, oihukatzea edo xuxurlatzearen artean.

## Konekta zaitez gurekin!

**aikor**  
txorierriko aldizkaria

 **Facebook:**  
aikor.txorierrikoaldizkaria

 **Twitter:**  
@AikorTxorierrri

 **Webgunea:**  
www.aikor.com



# Influentza: urteroko epidemiaren erruduna

Neguaeren etorrerarekin, jendez gainezka daude anbulatorioak eta osasun zentroak. Itxarongelak birusez beteta daude, eta guztien artean badago urtero bisitatzen gaituen bat: Influentza. Emakume italiarraren izenak ez gaitzala engainatu: gripearen arduradunaren birusa da, eta eguneroko gaixotasuna izan arren, ez genuke zertan gutxietsi behar, gripearen ondorioak uste baino gogorra- goak izan daitezkeelako.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Gripena Influentza birusaren gaixotasuna da, arnasketa sistemaren bidez hedatzen den infekzio kutsakorra. Gaixotasun honen berezitasun azpimarragarriena pertsonaz pertsona transmititzeko duen gaitasuna da. Transmisio modurik ohikoenak airearen bidezkoa da, gaixoak ez-tul egitean botatzen dituen ur tanten bidez. Birusa sudurretik edo ahotik sartu eta hedatzen hasten da eta gripearen sintomak sortuz. Birusa ukimenaren bidez ere transmititu daiteke, birusa daukan ezer ukituz eta ostean eskua aho edo sudurre-ra eramanez. Gaixotasunaren sintomak birusa barneratu eta egun batetik lautara agertu ohi dira. Badira pertsona batzuk birusaren honen infekzioa pairatu, baina


gaixotasuna garatzen ez dutenak. Ez dira gaixotzen, baina gaixotasuna transmititu dezakete.

Gripena urteko azken hilabeteetan agertzen den epidemia da: hots, aktibitate eta zirkulazio altua dauka denbora gutxian. Normalean, azarotik otsailera arte irauten du, astintze gogorrenak abenduan eta urtarrilean izanik. Tenperatura hotzen agerpenarekin, eta biztanleriaren zati handi bati gogor eragin diezaiokete. Gripena efektu bikoitza dauka: alde batetik, osasunari kalte egiten dio. Jende asko gaixotu dezake eta kontuan hartzen ez bada, neumonia bezalako gaixotasun hilkorrak sor ditzake (muturreko kasuetan). Osasun Ministerioaren arabera, biztanleria handiko zonaldeetan, gaixotuak % 5etik % 15 bitartekoak izan ohi dira. Eskola edo geriatriko



bezalako biztanleria talde itxietan, ostera, % 50a baino gehiagokoa izan ohi da. Beste alde batetik, gripeak gastu ekonomiko izugarriak eragiten ditu, denboraldi ertain-luzeko lan absentiak sortzen baititu.

“Gripena sindromearen kuadroa honakoa da: gorputz tenperaturaren igoera gogorra (normalean 38°-tik gorakoa), gihar minak, kalentura, ondoeza, buruko min jasangaitza, ahulezia, eztula, sudur-kongestioa, ez-tarri eta tripako mina, jateko gogo gutxi, goragaleak eta okadak izan ohi dira”, azaldu du Fernando Pérezek, Zamudioko familia-mediku ohiak. Gaixotasun kuadroak hiru-



## Gripena

–**Birusaren izena:** Influenza.

–**Iraupena:** azarotik otsailera, hilabete gogorrenak abendua eta urtarrila izanik.

–**Arrisku taldeak:** Umeentzat, 65 urtetik gorako nagusiak, bronkitikoak, diabetikoak, gaixotasun kronikoak, asmatikoentzat, gaixotasun administratiboak (anbulatorio eta geriatrikoetako langileentzat), kardiopati gaixoak, haurdunak.

–**Kontuan hartu beharrekoak:** atsedena, likidoak eta Paracetamola hartu.





*“2015ean, Txorierriko biztanleen % 75ek jarri zuten txertoa: 20.635 biztanletik 15.475 inguruk”*

iragarkietan, besteak beste, lelo honekin: “Gripea ez dezazula lagun izan: jarri txertoa”. Gripearean aurkako txertoa, berez, muskulu-barnekoa da, eta injektatu eta 24 ordura albo-ondorioak sor ditzake: febrikula, ondoeza... Paracetamolarekin arindu daitezke, baina inoiz ere antibiotikoen bidez: gripea birus batek sortzen du eta antibiotikoek ez dituzte sintomak hobetzen, ez eta sendaketa prozesua arintzen ere. Txertoaren immunitatea aste-bete eta lau aste bitartean agertzen da.

“2015ean, Txorierriko biztanleen % 75ek jarri zuten txertoa: 20.635 biztanletik 15.475 inguruk”, azaldu du Fernando Pérezek, “Aurreko urtean baino % 10 gehiago. Espero dugu aurten ere jende gehiago animatzea gripearri aurre egiteko”, argitu du Zamudioko medikuak. Txerto honek berebiziko garrantzia dauka arrisku taldeko biztanleentzat: umeentzat, 65 urtetik gorako nagusientzat, bronkitikoentzat, diabetikoentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat, asmatikoentzat, gaixotasun administratiboak jasaten dituztenentzat (anbulatorio eta geriatrikoetako langileentzat, besteak beste), kardiopatienten gaixoenentzat eta haurdunentzat.

bost egun iraun ohi du, eta horri gaixondoren denboraldia gehitu behar zaio. Gazteak arinago sendatzen dira, baina heldu eta nagusiek lau aste inguru eman ohi dituzte guztiz sendatzen.

#### Ziztada batean

Osasun zentrora joatean, besoan ziztadaxoa egin eta bizirik dauden birusak sartzen dituzte gure gorputzean. Birus hauek ez daukate gaitasun patogenorik, baina gripearean birusaren aurkako antigorputzak sor ditzakete. Txerto hauek Londresko Gripearean Jarraipen Zentroak diogenaren

arabera sortzen dira: urte bateko txertoak sortzeko orduan, zentroak aurreko urteko hiru andui nagusiak hautatzen dituzte eta horien arabera txerto berriak sortzen dituzte, birusak arrautzetan prestatuz. “Txertoa jartzen duten 100 pertsonetatik 80k lortzen dute babes. Babes tasa oso altua da. Nik uste dut benetan merezi duela”, argitu du Fernandok.

Aurten, Osakidetza Star Wars filmaz baliatu da txertaketa kanpaina egiteko. Leia Organa printzesa, Luke Skywalker eta Obi-Wan Kenobi ikusi dira kaleetako, ambulatorioetako, eta autobus geltokietako

Finalourrekoa

## LARRABETZU

Udal frontoian

**Abenduaren 3an, 17:30ean**

Ander Elorriagorri Gorria, Etxahun Leikus Etxebarria,  
Ibon Aguirreagorri Garmendia, Julen Erezuma Arzanezi,  
Mikel Goienena Larrazabal, Mirren Amuriza Plaza

Go-jarria: Maitte Berrizabal Berrizabal

Bizkaia bertsozari txapelketa 2016

Antolatzailea: Bizkaia

Bizkaia

bbk

Laguntzailea: aikori

STAR

TXI, Y FA 80

www.bertsozari.euzkadi.net

# Aurrekontu parte-hartzaileak

Lezamako Udalak deialdia egin die lezamarrei iradokizunak jakinarazteko eta herriko aurrekontuak osatzeko prozesuan parte-hartzeko

*t: Lezamako Udalak babestua*

Lezamako Udalak herritaren erabakitze ahalmena indartu nahi du, hau da, herritarrak aholkulari edo gomendio-emaile papera izatetik erabaki efektiboak hartzera pasatzea nahi du. Ildo horri jarraituz, 2017ko aurrekontuak parte hartzeko gonbita egin die lezamarrei. Udalekoek ondo dakite prozesu hori guztia ez dela erraza izango, baina, haien ustez, parte-hartze zuzenaren norabidean pauso bat emateko aukera da. Lezamarrek iradokizunak idatzi ahal izango dituzte, zinegotzietan haiek eztabaidatu eta agian Udalbatzan onartu, herritarrek haien aldeko boza ematen badute.

Lezaman erroldatutako 16 urtetik gorako lagunek izango dute prozesuan parte hartzeko aukera. Baita edozein elkartek eta sindikatuk ere. Proposamenak idatziz bidali behar dira, eta gutxienez pertsona edo entitate proposatzailearen identifikazioa (NAN edo IFK eta helbidea), eta proposamenaren azalpena agertu behar dira. Udalak neurri zehatzak hartuko ditu aurrekontu parte-hartzaileetan parte hartzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalen babesa bermatzeko, Datu Pertsonalen Babesari buruzko, abenduaren 13ko, 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako terminoetan.

Prozesua hiru fasetan egingo da. Lehenengoa, aurkezpena, urriaren 27an egin zen Udalbatzan. Handik aurrera, Udalak komunikazio kanpaina zabaldu zuen herritarrei prozesuaren berri emateko. Besteak beste, Udalak kartelak jarri zituen kalean, prentsa-ohar bat eta bando berezi bat kaleratu zituen eta esku-orri bat bidali zuen etxez etxe.

## Bilerak, auzoz auzo

Bigarren faseari azaroan bertan eman zaio hasiera. Hori lau urratsetan garatuko da. Azaroaren 7tik 20ra bitartean, herritarren ekarpenak jaso dira. Euren iradokizunak jakinarazteko, herritarrek herrian zehar jarritako buzoiak eta gizarte-sareak erabiltzeko aukera izan dute. Ostean, aza-

FASEA	LANA	EPEA
1. AURKEZPENA	Prozedura abiatu Udalbatzan	Urriaren 27ko Udalbatzan
	Komunikazio ekimenak: prentsa-oharra, kartelak...	
2. PROZESUA	Ekarpenak jasotzea	Azaroaren 7tik 20ra bitartean
	Batzarrak, auzoz auzo	Azaroaren 21etik 30era bitartean
	Proiektua aukeratzeko bozketak	Abenduaren 7an
	Herri batzarra, proposamena aurkezteko	Abenduaren 13an
3. UDAL BARRUKO PROZEDURA	Batzarretako akten bilketa eta sintesia	
	Eztabaida, udal-batzordeetan Aurrekontuak onartzeko Udalbatza Erabakia komunikatzea	Urte amaierarako Udalbatzan



roaren 21etik abenduaren 4ra bitartean, zinegotziek ekarpenak jaso eta herritarren batzarrak antolatuko dituzte auzoz auzo, 18:00etan: Goitioltzan, azaroak 21; Txakoli Loroño-Lorrako igoeran, azaroak 22; Bolalekun, azaroak 24; Udaletxean, azaroak 28; Trenbideko buzoia, elizan, azaroak 29; eta Kurtzeko pisuak, ermitan, azaroak 30. Hirugarren urratsa abenduaren 7an egingo da. Jasotako iradokizunetatik irtendako hiru proiektu aurkeztuko zaizkie herritarrei, eta haietako bat auke-

ratuko da, 2017an egiteko. Bukatzeko, herri batzar zabal bat antolatuko da abenduaren 13an.

Hirugarren fasea udal barruko prozedura da, hau da, herritarrek aurkeztutako proiektuak kudeatuko dituzte agintariak. Horrela, herritarren eskariak dagozkien udal-batzordeetara bideratuko dituzte eta haietan proposamenak eztabaidatu, adostu (ahal bada kontsentsuz; bestela, gehiengoz) eta Udalbatzara eramango dira.

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Lehen oinez izaten ziren gure joan-  
etorriak, gaur baino astiroago. Orduan,  
mundua iraunkorragoa zen, egonkorra-  
goa.

Zortzi urteko nintzela, kirikolatz bila  
jardunik, obusa aurkitu genuen gurpide  
bazterrean, gaur egun Mungiako Larra-  
mendi ikastolara doan bide hegalean. Hu-  
rrango soloan ari zen baserritarrari konta-  
tu orduko, sutan jarri zen gizona: utzi  
bakean horri, gerrako bonba da-eta! Ez  
etxean, ezta auzoan ere, ez zidan inork  
argitu zer zen gerra, zer obusa eta zergatik  
zegoen han. Gero, autodidakta ahaleginei  
esker jakin izan dut Gernikaz; Auzo  
Ikastolez; Emakume Abertzale Batzaz.

Urte haietan beldurra zen lege, isilta-  
suna ondorio.

Uhinez bizi gara orain, ez oinez aspal-  
dian bezala; arin, bat-bateko informazioa-  
rekin; modernitate likidoan –Bauman-ek  
dioenez–, ia ezer ez dela iraunkorra pen-  
tsatuz, mundu heteroan; teknologiak  
liluraturik. Hala ere, teknologia horren bi-  
hotzean bertan da presidente Donald  
Trump aberatsa, “txin-txin diruaren hotsa”  
bihurto duena “txin-txin diruaren lotsa”.

Bestalde, gogora datorkit Bizkaibus-  
eko neskaitila, Sondikan jaitsi zena, moda-  
ko armaduraz apaindua: mugikorra ezke-  
rrean, aurikularrak belarrietan; txilipitañie  
buruan. Boltsa ahaztu zuen jarlekuan, eta  
oihuka ekin genion, harik eta ez entzute-  
an, aldamenekoak sorbaldan ukitu eta  
boltsa ahaztua eskura eman zion arte.

# Lehen oinez, orain uhinez



Gaszte hura oinez baino uhinez zebi-  
len, WhatsAppetan edo Facebooketan,  
hodeietan. Eta autoisolatuta badabil, au-  
todidakta izanik kulturaz janzten ez bada,  
zer jakingo du ingurukoaz, euskal histo-  
riaz, erlijioez, zahagiez? Lehen, oinezko

aldian, beldurrak gobernatzen gintuen;  
gaur, indar faktikoak mugikorren atzean  
ezkutatzen dira; informatikaren gibelean.

Dena ezin konponduko dugu, baina,  
behintzat, ohartu egingo bagina, ez gina-  
teke Donald-en “Trapan” erroko.

 **ZAMUDIO**  
**Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lafendakari Loteria plaza, 2  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALBAITARITZA  
Nerea Pedrosa Galt. 517  
COOP. SANADEA ZAMUDIO BERRIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**R P A**  
MAYORISTAS INFORMATICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

**Peñasko**  
arraindegia



Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

## Sukaldaritza berritzailea

Onddoz beteriko zainzuri  
punten entsalada

t: Eduardo Delgado / a: Jon Goikouria

## Osagaiak:

- 50 gr errukula
- 30 gr onddo
- Tipula gorri bat
- 50 gr irin
- 50 gr gurin
- 500 ml esne
- 5 Cherry tomate
- Hezurrik gabeko oliba beltzak
- 10 gr Parmako gazta
- Arrautza bat
- Ogi arraspatua
- Oliba olioa
- Zainzuri punten bote bat

## Prestatzeko era:

Tipula gurinean sueztitu. Onddoak zaitu eta sueztitu dugunari gehitu. Sukaldatu. Irina eta esnea gehitu, horrekin guztiarekin bexamela sortuz. Erreserbatu.

Hezurrik gabeko olibak mikrouhinean sartu 8 minututan, gehienezko potentzian. Horrela, deshidratatuko dira. Ondoren, txikitu. Gero, tomateak galdarraztatu, zuritu eta olioan konfitatu. Gazta apur bat ebaki eta zati finetan zuritu, zuritzaile arruntarekin.

Zainzuriak bete, irinaz estali eta irabiaturiko arrautzarekin nahastu. Ondoren, platera prestatuko dugu: rukula gatzoz-pinduko dugu ozpin-olio neutro batekin.



## Etxeko sukaldaritza

Roquefort tarta  
gazia

t: Maite Lekerika / a: contigoenlaplaya.com

## Osagaiak, 4 laguntzako:

- 350 gr brisa orea
- 150 gr hazi bako mahats zuri
- 400 gr Roquefort gazta
- 200 gr Gruyère gazta
- 6 arrautza
- 500 ml esnegain
- Gazta
- Piperbeltz zuri ehoa

## Prestateko era:

Labako molde biribil bat estali oreagaz. Garbitu eta mahatsa garandu. Ebaki gaztak zentimetro bateko laukietan. Ondoren, ipini moldean, gaztak eta mahatsa nahastuta. Bestalde, ontzi baten nahastau arrautzak, esnegaina, gazta eta piperbeltz apur bat eta bota moldean dagoanari ganetik. Zabaldu ondo eta eragin apur bat, ondo nahastateko. Sartu laban, 200º-tan, 40 minutu inguru.

Epel edo hotz jan leiteke.



**Garmendia ardoak**

Pinoa pol, P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49

**Hartz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

**ASADOR FUENTENEberria**  
"Ur eta itsasoko baserria"

Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:  
Okela eta arraina  
bingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26  
ZAMUDIO (BIZKAIA)  
94 452 23 79  
www.asadorfuenteneberria.com

**OPTIKA IKUSLAN**


Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**TALLERES JUAN ANDRES**

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



## Lukie Koiu lehiaketaren 4. proba

AIKOR! aldizkariak bat egingo du hilabete honetan Lukie Koiu lehiaketaren 3. edizioarekin. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatzen du lehiaketa, eta horrek gazteen arteko euskararen erabilera sustatzea du helburu. Aurten euskara eta Txorierri izango dira lehiaketako gai nagusiak. Beraz, probek euskal kultura, Txorierriko ondare linguistikoa eta historikoa eta bertoko ohiturak izango dituzte ardatz. Hona hemen 4. proba. Ezetz Lukie Koiu!

### NOLA ESATEN DIRA TXORIERRIN HURRENGO SEI HITZAK?

- Zahatoa
- Erratza
- Sugandila
- Lastoa
- Azeria
- Tximeleta

Hitz hauek, Txorierriin esaten diren bezala idatzita, aurkitu beharko dituzue aldizkarian zehar. Aurkitutako hitz bakoitzari argazkia atera eta guri bidali beharko diguzue. Bidalitako argazki bakoitzagatik puntu bat jasoko duzue.

Aldizkarian zehar aurkitutako 6 hitzak letra-zopa honetan bilatu eta borobildu beharko dituzue. Aurkitutako 6 hitzak borobildu, letra-zopari argazkia atera eta guri bidali, 4 puntu lortuko dituzue honen truke.

### ARGAZKIAK NORA BIDALI?

info@lukiekoiu.com

663083736

Guztira 10 puntu lortu ahalko dituzue proba honetan!



## Erakusketak

### Derio

- > Kibera, Rafa Marrodán. Abenduaren 10era arte, Kultur birikan.

### Larrabetzu

- > Gabonetako postalen erakusketa. Abenduaren 14tik Aurrera, Angulerin.

## Hitzaldiak

### Zamudio

- > *Zamudio, bizimodua eta ohiturak* liburuaren aurkezpena. Abenduaren 15ean, 19:00etan, Zamudiotorreko hitzaldi gelan.

### Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan. Gure literatura ezagutzen: Gerraosteko literatura. Erbestea eta Errimina. Abenduaren 15ean, 19:00etan, Angulerin.

## Ikastaroak

### Derio

- > Derio euskalduna irudikatze tailerra, Tximintx Euskara Elkartearen eta Derioko Udalaren eskutik. Abenduaren 3an, 11:00etan, Kultur Birikan.
- > Haurrentzako txotxongiloak, Tximintx Euskara Elkartearen eta Derioko Udalaren eskutik. Ipuin Magikoak. Abenduaren 3an, 12:00etan.

### Lezama

- > Gabonetako Txokoa, Eskolako Gurasoen Elkartearen eskutik. Abenduaren 26, 27, 28 eta 30ean, 09:00etatik 14:00ak arte, eskola publikoan. Prezioa: 50 euro.
- > Ipuin Kontalariak: *Nola Dastatu Ilargia* eta *Bi Ahuntzak* liburuen irakurketa, Irakur Susperketa Programa 2016. Abenduaren 15ean, 18:00etatik 19:00etara, ludotekan.

### Larrabetzu

- > Saroarekin irakurketa saioak. Abenduaren 2an, 16:30etatik 19:30etara

## Ikuskizunak

### Derio

- > *Encomendados* bira. Abenduaren 2an, 20:30etan, Gurea Aretoan.
- > Gabonetako hegazkinen erakusketa, Subyke taldearen eskutik. Abenduaren 17an, 11:00etatik 14:00ak arte, frontoian.
- > Pepitaren Liburu Magikoa, Tximintx Euskara Elkartearen eskutik. Abenduaren 20an, 17:00etan, Kultur Birikan.

### Larrabetzu

- > Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizuna: *Tipi-Tapa korrika*. Abenduaren 13an, 17:30etan, frontoian.

## Irteerak

### Derio

- > Adarra mendia (811mt), Untza Mendi Taldearen eskutik. Abenduaren 18an, 07:30etan, Nagusien Etxean.

### Zamudio

- > Durangoko Azokara irteera. Abenduaren 6an, 09:30etan.
- > *Cabaret* antzerkia ikusteko irteera (Arriaga Antzerkira). Abenduaren 15ean, 19:00etan.
- > Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finaleira irteera. Abenduaren 17an, 14:00etan. Prezioa: 7 - 15 euro.

### Lezama

- > Lezama Ezagutu: Gaztelumendi, Goiri, Goitioitza, Gailur Mendi Taldearen eskutik. Abenduaren 11n, 09:30ean. Abiapuntua: Lezamako eskola.

### Larrabetzu

- > Izenaduba, Olentzeroren Etxera irteera. Abenduaren 17an. Izen ematea abenduaren 1etik Aurrera, Angulerin.

## Jaiak/ospakizunak

### Zamudio

- > Euskararen Eguna, abenduaren 3an 20:00etan, Gazte Estazioan.

### Lezama

- > Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 2an.

### Larrabetzu

- > Gure Etxeaneko gabonetako bazkaria eta 90 urtekoari omenaldia. Abenduaren 17an, Gure Etxean.
- > Nagusientzako txokolatada eta dantzaldia. Urtarrilaren 5ean, 18:30etan, Gure Etxean.

### Txorierri

- > Euskararen Eguna. Azaroaren 19tik abenduaren 4ra.
- > Ihesaren Nazioarteko Eguna, abenduaren 1ean.
- > Olentzero Eguna, Abenduaren 24an.
- > Urieri Bueltia VII. Lasterketa. Abenduaren 31n.

## Lehiaketak

### Derio

- > VIII. Argazki lehiaketa, Derio Argazki Taldearen eskutik. Abenduaren 17tik urtarrilaren 10era.

### Larrabetzu

- > Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Final-aurreakoa. Abenduaren 3an, frontoian.

## Musika

### Zamudio

- > Zamudioko Kamara Korralaren kontzertua, abenduaren 17an, 20:00etan, San Martin eleizan.

### Larrabetzu

- > Nire eta Mobydick taldeen kontzertua. Domekak HoriBai-en. Abenduaren 18an, 18:30etan.
- > Izar Argiaren gabonetako kontzertua. Abenduaren 22an, 19:30etan, Andra Mari eleizan.
- > Gaztelumendi abesbatzaren kontzertua. Abenduaren 23an, 20:00etan, Andra Mari eleizan.



berbalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ.



EMAN  
IZENA!

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,  
jende berria ezagutzeko,  
ilobarekin hitz egiteko.  
Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.  
Nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Irailean eta urrian

Kontaktua: BERBALAGUN | 635.75.35.95 | txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak





**ban**  
BASERRI**ANTZOKIA**

Eguneko menua  
Menu bereziak



Karta



Ekitaldiak



**Taileri, 6 -DERIO-  
Bizkaiko Teknologia Parkean  
(Seminario atzean)  
94 406 36 02**